

**DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA  
ARAUTZAILEA****ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESIÓN DE  
SUBVENCIONES****ARGIBIDEA**

ORR

PAG

**INDICE**ZIOEN AZALPENAI. KAPITULUAXEDAPEN OROKORRAK

- 1. Artikulua.- Ordenantzaren xedea.
- 2. Artikulua.- Diru-laguntzen kontzeptua eta motak.
- 3. Artikulua.- Printzipio orokorrak.
- 4. Artikulua.- Diru-laguntzak emateko eskumena.

5. Artikulua.- Diru-laguntzen araubide juridikoa.6. Artikulua.- Diru-laguntzei buruzko informazioa  
Udalaren Egoitza Elektronikoa.7. Artikulua.- Datuen konfidentzialtasuna eta babesa.II. KAPITULUAONURADUNAK

- 8. Artikulua.- Onuradunak.
- 9. Artikulua.- Onuradun izateko bete beharreko baldintzak.
- 10. Artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.

III. KAPITULUAKUDEAKETAREN PROZEDURA

- 11. Artikulua.- Diru-laguntzak arautzeko oinarriak eta/edo arauak.
- 12. Artikulua.- Deialdia.
- 13. Artikulua.- Eskaera.
- 14. Artikulua.- Instrukzioa.
- 15. Artikulua.- Ebazpena.
- 16. Artikulua.- Diru-laguntzen zenbatekoen ebazpena aldatzea.
- 17. Artikulua.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.
- 18. Artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak.
- 19. Artikulua.- Diruz lagundutako jarduerak onuradunek azpikontratatzea.
- 20. Artikulua.- Emandako diru-laguntzen publizitatea.

IV. KAPITULUADIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

- 21. Artikulua.- Diru-laguntzak emateko prozeduren motak.
  - 1. SEKZIOA.- Norgehiagokako erregimeneko diru-laguntzak
- 22. Artikulua.- Norgehiagokako erregimeneko diru-laguntzak
  - 2. SEKZIOA.- Konkurrentzia libreko erregimenean diren diru-laguntzak

3 EXPOSICION DE MOTIVOS4 CAPITULO IDISPOSICIONES GENERALES

- 4 Artículo 1.- Objeto de la ordenanza.
- 4 Artículo 2.- Concepto y clases de subvenciones.
- 6 Artículo 3.- Principios generales.
- 7 Artículo 4.- Competencia para la concesión de subvenciones.
- 7 Artículo 5.- Régimen jurídico de las subvenciones.
- 8 Artículo 6.- Información sobre subvenciones en la Sede Electrónica del Ayuntamiento.
- 8 Artículo 7.- Confidencialidad y protección de datos.

9 CAPITULO IIBENEFICIARIOS

- 9 Artículo 8.- Beneficiarios.
- 10 Artículo 9.- Requisitos para obtener la condición de beneficiario.
- 14 Artículo 10.- Obligaciones del beneficiario.

19 CAPITULO IIIPROCEDIMIENTO DE GESTION

- 19 Artículo 11.- Bases y/o normas reguladoras de las subvenciones.
- 21 Artículo 12.- Convocatoria.
- 23 Artículo 13.- La solicitud.
- 25 Artículo 14.- La Instrucción.
- 27 Artículo 15.- La Resolución.
- 29 Artículo 16.- Modificación de la Resolución de los importes subvencionados.
- 30 Artículo 17.- Financiación de las actividades subvencionadas.
- 32 Artículo 18.- Gastos Subvencionables.
- 35 Artículo 19.- Subcontratación de las actividades subvencionadas por los beneficiarios.
- 36 Artículo 20.- Publicidad de las subvenciones concedidas.

36 CAPITULO IVPROCEDIMIENTO DE CONCESION

- 36 Artículo 21.- Tipos de Procedimientos de concesión.
- 37 SECCION 1.ª Subvenciones en régimen de concurrencia competitiva
  - 37 Artículo 22.- Subvenciones en regimen de concurrencia competitiva.
- 38 SECCION 2.ª Subvenciones en régimen de libre concurrencia.



|                                                                                            |                                                                                                                   |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <u>23. Artikulua.- Konkurrentzia libreko erregimenean diren diru-laguntzak</u>             | <u>38 Artículo 23.- Subvenciones en régimen de libre concurrencia.</u>                                            |
| <u>3. SEKZIOA. Zuzeneko diru-laguntza izendunak</u>                                        | <u>38 SECCION 3.ª Subvenciones directas nominativas</u>                                                           |
| <u>24. Artikulua.- Zuzeneko diru-laguntza izendunak.</u>                                   | <u>38 Artículo 24.- Subvenciones directas nominativas.</u>                                                        |
| <u>V. KAPITULUA</u>                                                                        | <u>40 CAPITULO V</u>                                                                                              |
| <u>AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA</u>                                                    | <u>PROCEDIMIENTO DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA</u>                                                                    |
| <u>25. Artikulua.- Diru-laguntza ordaintzeko modua eta epeak.</u>                          | <u>40 Artículo 25.- Forma y Plazos de abono de la subvención.</u>                                                 |
| <u>VI. KAPITULUA</u>                                                                       | <u>41 CAPITULO VI</u>                                                                                             |
| <u>DIRU-LAGUNTZEN DESTINAZIOA JUSTIFIKATZEA</u>                                            | <u>JUSTIFICACION DEL DESTINO DE LAS SUBVENCIONES</u>                                                              |
| <u>26. Artikulua.- Diru-laguntzen destinazioa justifikatzea.</u>                           | <u>41 Artículo 26.- Justificación del destino de las subvenciones.</u>                                            |
| <u>27. Artikulua.- Justifikatzeko moduak.</u>                                              | <u>42 Artículo 27.- Formas de Justificación.</u>                                                                  |
| <u>28. Artikulua.- Justifikatzeko epeak.</u>                                               | <u>44 Artículo 28.- Plazos de Justificación.</u>                                                                  |
| <u>29. Artikulua.- Onuradunek diru-laguntzaren xedea bete dutela konprobatzea.</u>         | <u>45 Artículo 29.- Comprobación del cumplimiento del objeto de la subvención por parte de los beneficiarios.</u> |
| <u>VII. KAPITULUA</u>                                                                      | <u>46 CAPITULO VII</u>                                                                                            |
| <u>DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEKO PROZEDURA</u>                                                 | <u>PROCEDIMIENTO DE REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES</u>                                                             |
| <u>30. Artikulua.- Dirua itzuli beharraren eta kobratzeko eskubidea galtzearen kausak.</u> | <u>46 Artículo 30.- Causas del Reintegro y de la pérdida al derecho al cobro.</u>                                 |
| <u>31. Artikulua.- Dirua itzultzeko prozedura.</u>                                         | <u>49 Artículo 31.- Procedimiento de reintegro.</u>                                                               |
| <u>32. Artikulua.- Dirua itzultzerako behartuak.</u>                                       | <u>50 Artículo 32.- Los Obligados al Reintegro.</u>                                                               |
| <u>VIII. KAPITULUA</u>                                                                     | <u>51 CAPITULO VIII</u>                                                                                           |
| <u>SANTZIONATZEKO ERREGIMENA</u>                                                           | <u>RÉGIMEN SANCIONADOR</u>                                                                                        |
| <u>33. Artikulua.- Arau-haustearen kontzeptua.</u>                                         | <u>51 Artículo 33.- Concepto de infracción</u>                                                                    |
| <u>34. Artikulua.- Santzionatzeko prozedura.</u>                                           | <u>51 Artículo 34.- Procedimiento sancionador.</u>                                                                |
| <u>35. Artikulua.- Santzioak.</u>                                                          | <u>52 Artículo 35.- Sanciones</u>                                                                                 |
| <u>36. Artikulua.- Prozesu penalarrekin batera gertatzea.</u>                              | <u>52 Artículo 36.- Concurrencia con proceso penal.</u>                                                           |
| <u>37. Artikulua.- Beste espediente santzionatzaile batzuekin batera gertatzea.</u>        | <u>52 Artículo 37.- Concurrencia con otros expedientes sancionadores.</u>                                         |
| <u>38. Artikulua.- Ondasun publikoetan egindako kalteak.</u>                               | <u>53 Artículo 38.- Daños en bienes públicos.</u>                                                                 |
| <u>IX. KAPITULUA</u>                                                                       | <u>53 CAPITULO IX</u>                                                                                             |
| <u>BESTE XEDAPEN BATZUK</u>                                                                | <u>OTRAS DISPOSICIONES</u>                                                                                        |
| <u>39. Artikulua.- Interpretazioa.</u>                                                     | <u>53 Artículo 39.- Interpretación.</u>                                                                           |
| <u>40. Artikulua.- Publizitate instituzionala.</u>                                         | <u>53 Artículo 40.- Publicidad institucional.</u>                                                                 |
| <u>XEDAPEN GEHIGARRIAK</u>                                                                 | <u>53 DISPOSICIONES ADICIONALES</u>                                                                               |
| <u>Lehen Xedapen Gehigarria.</u>                                                           | <u>53 Disposición Adicional Primera.</u>                                                                          |
| <u>Bigarren Xedapen Gehigarria.</u>                                                        | <u>54 Disposición Adicional Segunda.</u>                                                                          |
| <u>Hirugarren Xedapen Gehigarria.</u>                                                      | <u>54 Disposición Adicional tercera.</u>                                                                          |
| <u>Laugarren Xedapen Gehigarria.</u>                                                       | <u>54 Disposición Adicional cuarta.</u>                                                                           |
| <u>I. ERANSKINA.- DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO BAIMENDURIKO DOKUMENTU ZERREDA</u>         | <u>54 ANEXO I.- RELACIÓN DE DOCUMENTOS AUTORIZADOS EN LA JUSTIFICACIÓN DE SUBVENCIONES</u>                        |
| <u>II. ERANSKINA.- JUSTIFIKAZIO-KONTU SINPLIFIKATUA</u>                                    | <u>54 ANEXO II.- CUENTA JUSTIFICATIVA SIMPLIFICADA</u>                                                            |
| <u>III. ERANSKINA.- OHIKO JUSTIFIKAZIO-KONTUA</u>                                          | <u>54 ANEXO III.- CUENTA JUSTIFICATIVA ORDINARIA</u>                                                              |
| <u>IV. ERANSKINA.- AUDITORE-TXOSTENA DUEN JUSTIFIKAZIO-KONTUA</u>                          | <u>54 ANEXO IV.- CUENTA JUSTIFICATIVA CON INFORME DE AUDITOR</u>                                                  |
| <u>XEDAPEN INDARGABETZAILEA</u>                                                            | <u>55 DISPOSICIÓN DEROGATORIA</u>                                                                                 |
| <u>AZKEN XEDAPENA</u>                                                                      | <u>55 DISPOSICIÓN FINAL</u>                                                                                       |



## ZIOEN AZALPENA

Diru-laguntzak interes orokorrekoztat jotzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira, eta legegileak Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokor azaroaren 17koaren bidez erregulatu ditu oinarritzko izaeraz.

Testuinguru horretan, Lasarte-Oriako Udala garrantzizko jarduera ari da egiten diru-laguntzen arloan, pertsona fisiko eta juridikoen eta entitate publiko eta pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko helburuarekin.

Jarduera hori erregulatzeko asmoarekin idatzi dugu Diru-laguntzen Ordenantza Orokor hau, printzipio orokor batzuetan oinarritua, eta printzipio horiek inspiratu behar dute beti diru-laguntzak emateko jarduera: Berdintasuna, publizitatea, gardentasuna, objektibotasuna, efikazia eta efizientzia.

Gai hau erregulatzeko Udalak ezarriak dituen xedapen guztiak biltzen ditu Ordenantza honek agiri bakar batean, nahiz eta diru-laguntzen lerro bakoitzak dituen oinarri berezietan beste xedapen batzuk ere jaso daitezkeen, betiere diru-laguntza ekonomikoen hartzaileek arau-erreferentzia bakar bat izan dezatela erraztearren, eta espedienteen izapideak egiteak berekin dituen administrazio-kudeaketak ere errazteko helburuarekin.

Ordenantza hau idazteko, abiapuntutzat hartu dugun ideia da Legeak oinarri orokorren hautamenera uzten dituen alderdi batzuk garatzea, baina, aldi berean, nahiko marjina uzten da, oinarri espezifikoek garapen hori osatzeko modua izan dezaten, kasu jakin bakoitzean gertatzen diren zertzeladetara egokitze aldera.

Horrekin, beteta geratzen da aipatutako lege horrek agindutakoa, eta honako ordenantza honetan jasotako terminoen arabera egiten da:

## EXPOSICION DE MOTIVOS

Las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos considerados de interés general, que el legislador ha regulado con carácter básico a través de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

En ese contexto, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria viene llevando a cabo una importante actividad subvencionadora, con el objetivo de dar respuesta a diferentes demandas sociales y económicas de personas físicas y jurídicas, y entidades públicas y privadas.

A fin de regular esta actividad se ha redactado la presente Ordenanza General de Subvenciones que descansa sobre un conjunto de principios generales, que deben inspirar en todo momento la actividad subvencional: Igualdad, publicidad, transparencia, objetividad, eficacia y eficiencia.

La presente ordenanza reúne en un único documento todas las disposiciones que el Ayuntamiento tiene regulado sobre esta materia, sin perjuicio de las disposiciones que se puedan recoger en las bases específicas en cada una de las líneas subvencionables, con el fin de procurar a los destinatarios de las ayudas económicas una única referencia normativa, al tiempo que se facilitan las gestiones administrativas que conlleva la tramitación de los expedientes.

Para la redacción de esta ordenanza se ha partido de la idea de desarrollar aquellos aspectos que la Ley deja al arbitrio de las bases generales, pero, al mismo tiempo, se deja el margen suficiente, para que las bases específicas puedan completar ese desarrollo en adecuación a las circunstancias concurrentes en cada caso concreto.

Con ello se da cumplimiento a lo preceptuado por la citada Ley, y se realiza conforme a los términos recogidos en la presente ordenanza:

**I. KAPITULUAXEDAPEN OROKORRAK****1. Artikulua.- Ordenantzaren xedea.**

Ordenantza honen xedea da diru-laguntzak emateko jarraitzen diren prozeduretan aplikatu beharreko erregimen orokorra ezartzea Lasarte-Oriako Udalean nahiz haren erakunde autonomoetan edo haren baltzuetan, baldin eta haien kapital soziala oso-osorik Udalarena bada.

**2. Artikulua.- Diru-laguntzen kontzeptua eta motak.**

1.- Diru-laguntzat edo laguntzat joko da Lasarte-Oriako Udalak nahiz haren erakunde autonomoek edo haren baltzuek –baldin eta haien kapital soziala oso-osorik Udalarena bada— pertsona edo entitate publiko edo pribatuei dohainik emandako funts publikoen edozein xedapen, herri-onurako edo interes sozialeko jardueraren bat sustatzera edo xede publikoren bat lortzea bultzatzera bideratua bada eta baldintza hauek betetzen baditu:

- a) Entrega onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.
- b) Entrega helburu jakin bat betetzeari, proiektu bat gauzatzeari, jarduera bat egiteari, portaera berezi bat hartzeari lotuta egotea, jadanik eginak nahiz garatu beharrekoak izan, edo egoera jakin bat gertatzea, eta ezarri diren betebeharrak materialak eta formalak bete beharko ditu onuradunak.
- c) Finantzatzen den proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren helburua onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo xede publikoren bat bultzatzea izatea.

2.- Bekak eta sariak. Bekak eta sariak ere diru-laguntzat joko dira, eta, horrenbestez, ordenantza honetan ezarritako erregimena aplikatuko zaie haien oinarrietan arautzen ez den guztian.

K

**CAPITULO IDISPOSICIONES GENERALES**

IND

**Artículo 1.- Objeto de la ordenanza.**

Es objeto de la presente ordenanza establecer el régimen general aplicable en los procedimientos que se sigan para el otorgamiento de subvenciones en el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, sus organismos autónomos, o en sus Sociedades Mercantiles cuyo capital social pertenezca íntegramente al Ayuntamiento.

IND

**Artículo 2.- Concepto y clases de subvenciones.**

1.- Tendrá la consideración de subvención o ayuda, cualquier disposición gratuita de fondos públicos otorgada por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, sus Organismos Autónomos y las Sociedades Mercantiles cuyo capital social corresponda íntegramente al Ayuntamiento de Lasarte-Oria, a favor de personas o entidades públicas o privadas, destinadas a fomentar una actividad de utilidad pública o de interés social o para promover la consecución de un fin público y que cumpla con los siguientes requisitos:

- a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.
- b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.
- c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

2.- Becas y premios.- Se considerarán también como subvención las becas y premios, siendo por lo tanto aplicable el régimen establecido en la presente Ordenanza en todo lo que no se regule en sus bases.

3.- Ordenantza Orokor hau ez da aplikatzekoa izango kasu hauetan:

- a) Aplikatzekoa den legedi tributario edo sektorialak araututako diru-laguntza inpropioak (hobariak, salbuespenak).
- b) Zerbitzu publiko baten kontzesionario bati emandako diru-laguntzak, zerbitzuaren funtzionamenduaren kontraprestazio gisa jasotzen baditu.
- c) Beste administrazio batzuek emandako diru-laguntzak, horietan Udalak bitarteko soil gisa jokatzeko badu.
- d) Udalaren ekarpenak, entitate hartzaileen jarduerak globalki finantzatzera xedatuak: Erakunde autonomoak; entitate publiko enpresarialak; partzuergoak; mankomunitateak; fundazioak; elkarteak, etab., horietan Udalak ordezkariak badu eta urtero ekarpen ekonomikoak egiten badizkie, haien aurrekontuak diruz laguntzeko.
- e) Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 5. xedapen gehigarrian (Udalen Federazioa eta Elkartea) aipatzen dituen elkarteak aldeko diru-laguntzak.
- f) Korporazioan ordezkariak duten talde politikoaren funtzionamenduko gastuei erantzuteko diru-laguntzak.
- g) Udalaren titulartasuneko ondasunak dohainik besterentzeko edo horien gozamina eta aprobetxamendua lagatzeko diren laguntzak edo diru-laguntzak, zeinak erregimen lokaleko ondarearen araudian ezarritakoak arautuko baititu.
- h) Onuradunek aldeztatik eskatu gabe ematen diren sariak eta aitorturak.
- i) Sektore-mailako xedapenean erregulazio propioa duten laguntzak edo diru-laguntzak.

3.- La presente Ordenanza General no será de aplicación en los siguientes casos:

- a) Subvenciones impropias reguladas por la legislación tributaria o sectorial aplicable (bonificaciones, exenciones).
- b) Subvenciones otorgadas al concesionario de un servicio público que las recibe como contraprestación del funcionamiento del Servicio.
- c) Subvenciones concedidas por otras Administraciones en las que el Ayuntamiento actúe como simple intermediario.
- d) Aportaciones del Ayuntamiento, destinadas a financiar globalmente las actividades de los entes receptores: Organismos autónomos; entidades públicas empresariales; consorcios; mancomunidades; fundaciones; asociaciones, etc. en las cuales está representada el Ayuntamiento y a los que, anualmente, se hacen aportaciones económicas para financiar sus presupuestos.
- e) Subvenciones a favor de las asociaciones a que se refiere la disposición adicional 5.ª de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local (Federación y Asociación de Municipios).
- f) Subvenciones a los grupos políticos representados en la Corporación para atender sus gastos de funcionamiento.
- g) Las ayudas o subvenciones que consistan en la enajenación a título gratuito o la cesión del disfrute y aprovechamiento de los bienes de titularidad municipal, que se regirá por lo dispuesto en la normativa patrimonial de régimen local.
- h) Los premios y reconocimientos que se otorguen sin la previa solicitud del beneficiario.
- i) Las ayudas o subvenciones que tengan su propia regulación en disposición de carácter sectorial.



### 3. Artikulua.- Printzipio orokorrak.

1.- Ordenantza honetan aipatzen diren diru-laguntzak printzipio hauek kontuan hartuta kudeatuko dira:

- a) Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- b) Laguntzaren emaileak ezarritako helburuak betetzean efikaza izatea.
- c) Baliakizun publikoak esleitzean eta erabiltzean efizientea izatea.

2.- Ordenantza hau aplikatuz iragarritako programen urteko garapenera Udalak xedatzen dituen baliakizunak urte bakoitzean onesten den aurrekontuan horretarako ezartzen diren kontu-sailen kargura finantzatuko dira, eta kontu-sail horien baliakizun ekonomikoak izango dituzte mugatzat.

Nolanahi ere, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak eman ahal izateko, nahitaezko baldintza izango da ebazpenenaren unean helburu horietarako diru-kopuru egokia eta nahikoa egotea aurrekontuetan.

3.- Borondatezkoak eta behin-behinekoak izango dira, legez edo arauz kontrakoa xedatzen ez bada.

4.- Lehenago emandako diru-laguntzek ez dute inolako eskubiderik sortuko eskatzaileen alde, eta ezingo dira aurrekari gisa inbokatu.

5.- Ezingo da diru-laguntzaren zenbatekoa gehitzeko edo berraztertze eskatu. Hori horrela izanik ere, baldin eta hori motibatzen duen zertzelada gertatzen badira, organo laguntza-emaileak, hala iruditzen bazaio, gehitu edo berraztertu ahalko du.

6.- Diru-laguntzak edo laguntzak emateko, arau honetan ezarritakoari jarraituko zaio, bai halaber, hala badagokio, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan xedatutakoari eta, gainera, aplikatzeko unean indarrean dagoen araudiari, betiere publizitatea, konkurrentzia eta objektibotasuna bermatu beharko delarik.

IND

### Artículo 3.- Principios generales.

1.- La gestión de las subvenciones a que se refiere esta ordenanza se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

- a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
- b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por el otorgante.
- c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

2.- Los recursos que el Ayuntamiento destine al desarrollo anual de los programas convocados en aplicación de la presente Ordenanza, se financiarán con cargo a las partidas establecidas al efecto en el presupuesto que se apruebe anualmente, y que tendrá como límite las disponibilidades económicas de los mismos.

En todo caso, la concesión de subvenciones y ayudas quedará condicionada a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente para dichos fines en el momento de la resolución.

3.- Tendrán carácter voluntario y eventual, excepto lo que se dispusiera legal o reglamentariamente.

4.- Las subvenciones otorgadas con anterioridad no crearán derecho alguno a favor de los petitionarios, y no serán invocables como precedente.

5.- No será exigible el aumento de la cuantía de la subvención o su revisión. Ello no obstante, si concurren circunstancias que lo motiven, el órgano concedente podrá, si así lo considera, aumentarla o revisarla.

6.- La concesión de ayudas o subvenciones se efectuará conforme a lo establecido en la presente norma, y a lo dispuesto, en su caso, en las bases específicas de cada una de las convocatorias y, además, en la normativa vigente en el momento de su aplicación, debiéndose garantizar la publicidad, concurrencia y objetividad.



7.- Publizitatea eta konkurrentzia ez dira beharrezkoak izango zuzeneko diru-laguntza izendunetan edo izengabeetan, ez halaber diru-laguntzok ematea eta horien zenbatekoa Udala nahiz haren erakunde autonomoak eta sozietate publikoak lotzen dituen arau batek ezarritakoak direnean.

8.- Norgehiagokako erregimeneko diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da.

9.- Edozein kasutan, entitate laguntza-emailea salbuetsia geratuko da diruz lagundutako pertsonen edo entitateen egin behar dituzten jardueretatik sortutako edozein erantzukizun zibil, komertzial eta laboraletatik nahiz beste edozein motatako erantzukizunetatik.

#### **4. Artikulua.- Diru-laguntzak emateko eskumena.**

1.- Laguntzak edo diru-laguntzak emateko eskumena izango dute horietarako gastuak baliatzeko eta baimentzeko ahalmena duten organoek, zeinek bere eskumenen esparruan. Nolanahi ere, eskuduntza horiek delegatu ahalko dituzte, legedi lokalean ezarritako terminoetan.

2.- Erakunde Autonomoetan eta Udaleko Sozietate Publikoetan, berriz, beren estatutuen arabera eskumen hori esleitua duten organoek egingo dute, eta, estatutuetan ez bada halakorik jasotzen, Erakunde Autonomoaren zuzendaritzak edo administrazioko kontseiluak izango du eskumen hori.

#### **5. Artikulua.- Diru-laguntzen araubide juridikoa.**

Ordenantza honek eta diru-laguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak arautuko dute diru-laguntza hauek ematea eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa.

Oinarri-arau espezifikoek berariaz beste erregulazio mota bat ezartzen ez badute behintzat, ordenantza honetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie Udalak onartutako laguntza edo diru-laguntza programa guztiei.

7.- No será necesaria la publicidad ni la concurrencia en los supuestos de subvenciones directas nominativas o no nominativas, ni cuando su concesión y cuantía resulten impuestas por norma que vincule al Ayuntamiento, sus organismos autónomos y sus sociedades públicas.

8.- El procedimiento para la concesión de las subvenciones en régimen de concurrencia competitiva será el concurso.

9.- En cualquier caso el ente concedente quedará exento de cualquier responsabilidad civil, mercantil, laboral o de cualquier clase derivada de las actuaciones a que queden obligadas las personas o entidades subvencionadas.

#### **Artículo 4.- Competencia para la concesión de subvenciones.**

1.- Serán competentes para la concesión de las ayudas o subvenciones aquellos órganos facultados para la autorización y disposición del gasto correspondiente, en el ámbito de sus respectivas competencias, sin perjuicio de que dichas atribuciones puedan ser delegadas en los términos previstos en la legislación local.

2.- En los Organismos Autónomos y en las Sociedades Públicas Municipales, se efectuará por los órganos que tengan atribuida dicha competencia en sus respectivos Estatutos, y en el caso que no figure, será el consejo rector del Organismo Autónomo o el Consejo de Administración.

#### **Artículo 5.- Régimen jurídico de las subvenciones.**

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el Ayuntamiento y el beneficiario se regirá por la presentes ordenanza y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Salvo que las bases específicas establezcan expresamente otro tipo de regulación, las disposiciones y requisitos establecidos en la presente ordenanza serán de aplicación a todos los programas de ayuda o subvención aprobados por el Ayuntamiento.



Ordenantza honetan agertzen ez den guztian, aplikatuko da Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako arauak, gai honi aplikatzekoak.

## **6. Artikulua.- Diru-laguntzei buruzko informazioa Udalaren Egoitza Elektronikoa.**

Udalaren Egoitza Elektronikoak, bere edukien artean, diru-laguntzak eta sariak emateko prozedurei buruzko informazio guztia jasoko du, prozedura horiek edo, gutxienez, horien garapenaren hasierako faseak aldeztu aurretik ezagutzeko aukera izan dezagun. Bereziki, eta edozein kasutan ere, ondorengo datuak jasoko dira:

- a) Diru-laguntzari buruzko informazio orokorra, hori erregulatzen duen ordenantza eta/edo arauari buruzko informazio laburtuarekin batera, eta horrez gain, horren esteka.
- b) Eskara-inprimakiak, eta hala egokituz gero, interesatuek erabili beharko dituzten ereduak.
- c) Prozedurari buruzko ebazpena, esleipendunen datuak publiketatik salbuetsita egotea legeztatuak dagoen kasuetan izan ezik.

## **7. Artikulua.- Datuen konfidentzialtasuna eta babesa.**

1.- Pertsona fisikoei eragiten dieten diru-laguntzen eta sarien prozeduretan, organo kudeatzaile bakoitzak egiten duen datuen tratamenduak bete egin beharko du Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa.

2.- Prozedura horien ebazpenak dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean, bete egin beharko dira aldizkarietan eta Interneteko egunkari ofizialetan, erakundearen webguneetan eta beste hedabide elektroniko eta telematikoetan datu pertsonalak argitaratzeari buruz organo eskudunak erabakitako araudi eta jarraibideak.

En todo lo no previsto en la presente ordenanza, será de aplicación la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

## **Artículo 6.- Información sobre subvenciones en la Sede Electrónica del Ayuntamiento.**

La Sede Electrónica del Ayuntamiento incluirá entre sus contenidos toda la información relativa a los procedimientos de concesión de subvenciones y premios que permita tanto el conocimiento previo de dichos procedimientos como, al menos, las fases principales de su desarrollo. En particular, se incluirán en todo caso los siguientes datos:

- a) La información general sobre la subvención, con información extractada, en su caso, de la ordenanza y/o norma reguladora, así como el enlace a la misma.
- b) Los impresos de solicitud, así como, en su caso, modelos que se deberán utilizar por parte de los interesados.
- c) La resolución del procedimiento, salvo en los casos en que legalmente esté justificada la exclusión de la publicidad de los datos de los adjudicatarios.

## **Artículo 7.- Confidencialidad y protección de datos.**

1.- En aquellos procedimientos de subvenciones y premios que afecten a personas físicas, el tratamiento de los datos que se realice por cada uno de los órganos gestores deberá cumplir con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

2.- La publicación que se realice en el Boletín Oficial correspondiente de las resoluciones de dichos procedimientos, deberá cumplir con la normativa e instrucciones adoptadas por el órgano competente sobre publicación de datos personales en boletines y diarios oficiales en Internet, en sitios web institucionales y en otros medios electrónicos y telemáticos.

**II. KAPITULUAONURADUNAK****8. Artikulua.- Onuradunak.**

1.- Funts publikoen hartzailea joko da diru-laguntzaren onuraduntzat, eta diru-laguntza hori ematea oinarritu zuen jarduera hori gauzatu beharko du, edo diru-laguntza jasotzeko zilegizko egoeran egon beharko du.

Diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte, batez ere, Lasarte-Orian egoitza eta jardun-eremua daukaten pertsonak eta elkarteak edo entitateak. Salbuespen gisa, nahiz eta Lasarte-Orian egoitza ez izan, bere jardun-eremua Lasarte-Orian edota bere jardueraren zati nabarmen bat udalerrian garatzen bada edo Udalak ekintza edo proiektua udalerrarentzat interesgarri jotzen badu.

Elkarteak edo entitateak inskribatuak egon beharko dute Udalak horretarako prestatua duen Erregistroan, edo Autonomia Erkidegoaren Elkartearen Erregistroan edo beste erregistro publiko batzuetan, eta, halaber, dagokien identifikazio fiskalaren kodearen jabe izan behar dute.

2.- Salbuespenez, eta diru-laguntzen eskaerak 5.000,00 eurotik beherakoak izanez gero, onuradun-izaera izan dezakete pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen taldeak, ondasun-erkidegoak edo unitate ekonomikoa edo ondare bereizia den beste edozein motak, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, udalaren laguntza edo diru-laguntza lor dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi dituztenean.

**CAPITULO IIBENEFICIARIOS****Artículo 8.- Beneficiarios.**

1.- Tendrá la consideración de beneficiario de la subvención el destinatario de los fondos públicos que habrá de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión.

Podrán solicitar subvenciones, principalmente, aquellas personas y asociaciones o entidades que tengan su sede y ámbito de actuación en Lasarte-Oria, y, excepcionalmente, aquellas otras entidades que, aún no teniendo su sede o su ámbito de actuación en Lasarte-Oria, desarrollen actividades o proyectos considerados de interés por parte del Ayuntamiento.

Las Asociaciones o Entidades deberán hallarse inscritas en el Registro que el Ayuntamiento tenga habilitado al efecto o en el de Asociaciones de la Comunidad Autónoma u otros registros públicos, y hallarse en posesión del correspondiente código de identificación fiscal.

2.- Excepcionalmente, y para el supuesto de solicitudes de subvención por importe inferior a 5.000,00 euros, podrán acceder a la condición de beneficiario las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aún careciendo de personalidad jurídica, pretendan llevar a cabo proyectos o actividades susceptibles de obtención de la ayuda o subvención municipal.



Kasu horietan, espresuki adieraziko da, eskabidean bezala diru-laguntza emateko ebazpenean ere, elkarteko kide bakoitzak zein konpromiso hartzen dituen gauzatzeko eta zein den horietako bakoitzagatik aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa, haiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion obligazioak betetzeko ahalorde askietsia izango duena. Elkartea ezingo da desegin 4 urteko preskripzio-epea igaro den arte.

#### **9. Artikulua.- Onuradun izateko bete beharreko baldintzak.**

1.- Diru-laguntzen onuradun izan daitezke 8. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, baldin eta Ordenantza honetan, oinarri berezietan eta emakidaren edo hitzarmenaren erabakian aurreikusitako xehetasunak betetzen badituzte, horiek emateko oinarri den egoeran aurkitzen badira eta 2. eta 3. apartatuetan ezarritako egoeretako batean ere ez badaude, diru-laguntzaren izaera dela eta horretatik salbuetsita egon ezean.

2. Ondorengo zirkunstantzia hauetako batean dauden pertsonak edo entitateak ezingo dira izan Ordenantza honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunak, non eta diru-laguntzaren izaeragatik beragatik ez den haren araudi erregulatzaillean horrelakorik salbuesten:

- a) Epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzera kondenatuak izatea.
- b) Konkurtsoa deklaratzeko eskatua izatea, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak egotea, konkurtsoan deklaratuak egotea —non eta bertan hitzarmen batek efikazia bereganatu ez duen—, interbentzio judizial bati lotuak egotea edo Konkurtsoen Legearen arabera ezgaituak egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako ezgaitasun-epea bukatuta egon gabe.

En estos casos, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarios. En cualquier caso, deberá nombrarse un representante o apoderado único de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción de 4 años.

#### **Artículo 9.- Requisitos para obtener la condición de beneficiario.**

1.- Podrán acceder a la condición de beneficiarios de las subvenciones, las personas físicas o jurídicas y las entidades referidas en artículo 8, en las que concurren las circunstancias previstas en la presente Ordenanza, en las bases específicas, acuerdo de concesión o convenio, que se encuentren en la situación que fundamenta su concesión y en las que no concorra ninguna de las circunstancias establecidas en los apartados 2 y 3, salvo que por la naturaleza de la subvención se exceptúen.

2.- No podrán obtener la condición de beneficiario de las subvenciones reguladas en esta Ordenanza las personas o entidades en quienes concorra alguna de las circunstancias siguientes, salvo que por la naturaleza de la subvención se exceptúe por su normativa reguladora:

- a) Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.
- b) Haber solicitado la declaración de concurso, haber sido declarados insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declarados en concurso, salvo que en éste haya adquirido la eficacia un convenio, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.



- c) Administrazioarekin eginiko edozein kontraturen deuseztapen irmoa eragin izatea, horren kausaren errudun deklaratuak izan badira.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritzako sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen interes-gatazkak erregulatzeko 3/2015 Lege martxoaren 30ekoak eta Administrazio Publikoaren Zerbitzura Lanean ari diren Langileen Bataerazintasunei buruzko 53/1984 Lege abenduaren 26koak araututako kasuetakoren batean egotea, edota Hauteskunde Erregimen Orokorren 5/1985 Lege Organiko ekainaren 19koak araututako hauteskunde karguetako edozein izatea, lege horretan edo arlo horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako terminoetan.
- e) Egunean ez egotea indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeari dagokionez, arauetan ezarritako moduan.
- f) Erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikaturiko herrialde edo lurralde batean izatea bere egoitza fiskala.
- g) Udalak edo bere erakunde publikoek emandako diru-laguntzak oraindik justifikatzeko daudenean, betiere horiek aurkezteko ezarritako epea amaitua baldin badago, azaroaren 17ko 8/2003 Legearen Araudiko 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua gauzatua egon ala ez. Debeku honen egiaztapena automatikoki gauzatuko da eta bere horretan iraungo du justifikaziorik ez dagoen bitarte guztian.
- h) Jasotako diru-laguntzak itzuli behar izateagatik, obligazioen ordainketan egunera ez egotea. Pagatzeko obligazio hori ez betetzeak bere barruan hartzen du zorra epe exekutiboan ordaindu ez izatea eta/edo diru-itzuleragatik borondatezko epean irekitako 2 zor ez pagatzea.
- c) Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declarados culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
- d) Estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 3/2015, de 30 de marzo, de regulación de los conflictos de intereses de los altos cargos de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.
- e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.
- f) Tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.
- g) Cuando estén pendientes de justificación subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento o sus organismos públicos, siempre que el plazo establecido para su presentación hubiera finalizado, con independencia de que el requerimiento a que se refiere el artículo 70.3 del Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, se hubiera realizado o no. La apreciación de esta prohibición se realizará de forma automática y subsistirá mientras perdure la ausencia de justificación.
- h) No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones. Este incumplimiento de la obligación de pago abarca la falta de abono de la deuda en período ejecutivo y/o el impago de 2 deudas por reintegro abiertas en el período voluntario.



- i) Ebazpen irmo baten bitartez diru-laguntzak jasotzeko aukera galtzarekin santzionatua egotea, Diru-laguntzen Lege Orokorren arabera edo horrela ezartzen duten beste lege batzuen arabera.
- j) Sexuzko diskriminazioa egiteagatik santzio administratiboa edo penala jaso izatea, edo diru-laguntzak eskuratzeko debekuarekin santzionaturik egotea, Euskal Herriko Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 Lege otsailaren 18koaren arabera.
- k) Jarduera garatzeko behar den baimenean aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik ebazpen irmoz santzionatuak izan diren eskatzaileak.
- l) Arau honetan jasotako prozedura santzionatzailearen ondorioz diru-laguntzak eskuratzeko eskubidea galdua duten eskatzaileak, ebazpenean ezarritako epean.
- m) Jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik onarpen-prozeduran edo funtzionamendu-prozeduran diskriminaziorik egiten duten eskatzaileak, ez eta beren jardueraren bitartez pertsona fisikoen edo juridikoen aurkako gorrotoa edo indarkeria sustatzen edo justifikatzen dutenak ere.
- n) Ezingo dira onuradun izan artikuluko 2. puntuan aurreikusitako taldeak, haien kideetako edozein aurreko debeku horietakoren batean kausitzen bada.
- i) Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones conforme a la Ley General de Subvenciones u otras leyes que así lo establezcan.
- j) Haber sido sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, o haber sido sancionado con prohibición de obtener subvenciones públicas, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres del País Vasco.
- k) Los solicitantes que por resolución firme hayan sido sancionadas por el incumplimiento de las condiciones previstas en la autorización precisa para el desarrollo de la actividad.
- l) Los solicitantes que hubieran perdido el derecho a la obtención de las subvenciones como consecuencia del procedimiento sancionador contemplado en esta norma, y por el plazo establecido en la resolución.
- m) Los solicitantes que en su proceso de admisión o funcionamiento discriminen por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier circunstancia personal o social, ni aquellas que con su actividad promuevan o justifiquen el odio o la violencia contra personas físicas o jurídicas.
- n) No podrán acceder a la condición de beneficiarios las agrupaciones previstas en el apartado 2 de este artículo cuando concurra alguna de las prohibiciones anteriores en cualquiera de sus miembros.

3.- Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. ataletan ezarritako debekuen kausetan sartuak aurkitzen diren elkarteek ezingo dira inola ere izan Ordenantza honetan araututako diru-laguntzen onuradun.

3.- En ningún caso podrán obtener la condición de beneficiario de las subvenciones reguladas en esta Ordenanza las asociaciones incursas en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, Reguladora del Derecho de Asociación.



Eta, aipatutako Legeak 30.4. artikuluan xedaturikoa aplikatuz, baldin eta, elkarre bati ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitu zaizkiolako, haren inskripzioko prozedura administratiboa eteten bada, delako elkarre hori ere ezingo da onuradun izan, harik eta ebazpen judizial irmo baten bertutez dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen zaion arte.

4.- Artikulu honetako 2. puntuko b), d), e), f), g), h), i), j), k) eta l) paragrafoetan eta 3. puntuan jasotzen diren debekuak automatikoki hartuko dira aintzat, eta bere horretan iraungo dute kasu bakoitzean debekuaren arrazoi diren zirkunstantziak gertatzen diren bitartean.

5.- Artikulu honetako 2. ataleko a) eta i) paragrafoetan jasotzen diren debekuak ere automatikoki hartuko dira aintzat. Epai edo ebazpen irmo batek erabakiko du zein den debekuaren hedadura. Halakorik ezean, debekuaren hedadura arauz zehazturiko prozeduraren bidez finkatuko da, baina, debekua epai irmo batetik ez badator, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

6.- Artikulu honen 2. ataleko c) paragrafoan jasotako debekua aintzat hartzeko eta haren hedadura zehazteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoaren 60. artikuluari buruz 61. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da.

7.- Artikulu honetako 2. eta 3. puntuetan aipatu diren eta onuradun izatea eragozten duten debeku-egoeretan ez daudela justifikatzeko, pertsonak edo entitateek lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak erabili ahalko dituzte, Estatuko Administrazio Orokorrek edo Komunitate Autonomoetakoek teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea arautzen duen erregelamenduzko araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, ziurtagiri administratiboa, kasuaren arabera, eta agintaritzak eskudunak dokumentu hori jaulki ezin duenean, erantzukizuneko deklarazio bat egin ahalko da haren ordean.

Tampoco podrán obtener la condición de beneficiario las asociaciones respecto de las que se hubiera suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la citada Ley, en tanto no recaiga resolución judicial firme en cuya virtud pueda practicarse la inscripción en el correspondiente registro.

4.- Las prohibiciones contenidas en los párrafos b), d), e), f), g), h), i), j), k) y l) del apartado 2 y en el apartado 3 de este artículo se apreciarán de forma automática y subsistirán mientras concurren las circunstancias que, en cada caso, las determinen.

5.- Las prohibiciones contenidas en los párrafos a) y i) del apartado 2 de este artículo también se apreciarán de forma automática. El alcance de la prohibición será el que determine la sentencia o resolución firme. En su defecto, el alcance se fijará de acuerdo con el procedimiento determinado reglamentariamente, sin que pueda exceder de 5 años en caso de que la prohibición no derive de sentencia firme.

6.- La apreciación y alcance de la prohibición contenida en el párrafo c) del apartado 2 de este artículo se determinará de acuerdo con lo establecido en el artículo 61, en relación con el artículo 60 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

7.- La justificación por parte de las personas o entidades de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario, señaladas en los apartados 2 y 3 de este artículo, podrá realizarse mediante testimonio judicial, certificados telemáticos o transmisiones de datos, de acuerdo con lo establecido en la normativa reglamentaria que regule la utilización de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas por la Administración General del Estado o de las Comunidades Autónomas, o certificación acreditativa, según los casos, y cuando dicho documento no pueda ser expedido por la autoridad competente, podrá ser sustituido por una declaración responsable.

## 10. Artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.

1.- Onuradunaren betebeharrak dira, diru-laguntzen lerro bakoitzaren berariazko oinarri espezifikoetatik erator daitezkeenez gain, bereziki honako hauek:

- a) Diru-laguntza emateko oinarritzat hartu den proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jokabidea hartzea.
- b) Jarduera egiten ari dela edo jokabidea hartu duela frogatzea, bai halaber laguntza emateko edo horretaz gozatzeko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela.
- c) Diruz lagundutako jarduera burutzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Organo laguntza-emaileak egin beharreko konprobaziozko jarduketan mende jartzea eta horretan laguntzea, indarrean dagoen araudiaren terminoetan, bai halaber kontrol-organoek egin ditzaketen konprobaziozko eta kontrol finantzarioko beste jarduketan kasuan ere, eta aurreko jarduketa horiek gauzatzean errekeritzen dioten informazio guztia aportatzea.
- e) Kontabilitateko liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak edukitzea, onuradunari aplikakizun zaion legislazio komertzialak eta sektorialak beharretsitako terminoetan; edo, kasua hala bada, diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak eta/edo bazkideei errendatu behar dizkieten erregistro espezifikoak, konprobaziorako eta kontrolerako ahalmenak egokiro baliatzen direla bermatzearen.
- f) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak, dokumentu elektronikoak barne, 4 urteko epean gordetzea, konprobazioko eta kontroleko jarduketak egin dakizkiekeen neurrian, 31.8. artikuluan ageri diren epeen arabera.

## <sup>IND</sup> Artículo 10.- Obligaciones del beneficiario.

1.- Son obligaciones de las personas beneficiarias, además de las que puedan derivarse de las bases específicas de cada línea de subvenciones, especialmente las siguientes:

- a) Ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.
- b) Acreditar la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda.
- c) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para la realización de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.
- d) Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.
- e) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario; o, en su caso, estados de ingresos y gastos y/o registros específicos que se deban rendir ante los socios, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
- f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de 4 años, conforme a los plazos que figuran en el artículo 31.8.

- g) Baldin eta beste administrazio edo entitate batzuetatik —publikoak nahiz pribatuak, estatukoak nahiz nazioartekoak— helburu bererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, organo laguntza-emaileari horren berri ematea.
- h) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein zirkunstantzia —objektibo nahiz subjektibo— aldatuz gero, organo laguntza-emaileari aldaketa horren berri ematea.
- i) Diru-laguntza ematea ebazteko proposamena egin aurretik, betebeharrak tributarikoak eta Segurantzaren Sozialarekikoak egunean dituela akreditatzea.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako zertifikazioak aurkeztu ordez, interesatuaren edo entitateko ordezkariaren erantzukizuneko deklarazioa aurkeztu ahal da, obligazio horiek betetzeaz den bezainbatean egunera dagoela dioena, ondoko kasu hauetan:

- \* Diru-laguntzen onuraduna entitate publikoren bat denean.
- \* Ikasteko beka edo diru-laguntzak direnean.
- \* Salbuespeneko kalteak ordaintzera xedaturiko diru-laguntza atzeratzeak direnean.
- \* 3.000,00 eurotik beherako diru-laguntzak direnean, onuradun eta deialdi bakoitzeko.

Onuradunak Lasarte-Oriako Udalari baimena eman ahal da, diru-laguntza eskuratzeko baldintza eta eskakizun guztiak betetzen direla egiaztatze behar diren datuak erakunde eskudunei galdegiteko. Erakunde eskudunak izango dira, behinik behin, Udala bera, Foru Ogasunak, eta Segurantzaren Sozialaren Diruzaintza Orokorra.

- j) Diruz lagundutako jarduerari zabalkundea emateko ekintzetan, jasota agertu beharko du Lasarte-Oriako Udalak diru-laguntza bidez kolaboratzen duela.

- g) Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.
- h) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
- i) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

La presentación de declaración responsable del interesado, o representante de la entidad, de estar al corriente en el cumplimiento de dichas obligaciones, sustituirá a la presentación de las certificaciones previstas en el párrafo anterior en los siguientes casos:

- \* Cuando el beneficiario de la subvención sea una Entidad Pública.
- \* Cuando se trate de becas o ayudas de estudios.
- \* Cuando se trate de subvenciones destinadas a sufragar daños excepcionales de carácter inaplazable.
- \* Cuando se trate de ayudas de cuantía inferior a 3.000,00 euros por beneficiario y convocatoria.

El beneficiario podrá autorizar al Ayuntamiento de Lasarte-Oria a recabar de los organismos competentes los datos necesarios para verificar el cumplimiento de todas las condiciones y requisitos de acceso a la subvención. Los organismos competentes serán, al menos, el propio ayuntamiento, las Haciendas Forales y la Tesorería General de la Seguridad Social.

- j) En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá hacerse constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.



- k) Kasua hala bada, jarduera egiteko utzitako infrastruktura eta dominio publikoa errespetatzea eta behar bezala erabiltzea. Baldin eta jarduera egindakoan egiaztatzen bada haietakoren batean kalterik edo galerarik gertatu dela, horien balorazioko zenbatekoa diru-laguntzatik deskontatu ahalko da, dagokion espediente bideratu eta gero.
- l) Ez da ezein alderdi edo talde politikori sostengu emateko inolako edukirik ametituko ez diru-laguntzaren xedeko jardueretan, ez zabalkunderako euskarrietan, ez eta diru-laguntzaren xedeko ospakizunetarako ipiniko dituzten azpiegituretan ere.
- m) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak Udalari ematen dion habilitazioan oinarrituz eta legearen 7.2 artikuluan jasotakoak garatuz, diru-laguntzen entitate onuradunei, antolatzen dituzten jardueren ezaugarrien arabera, honako hizkuntza-irizpideak betearaziko dizkie:
1. Jarduera 16 urtetik beherakoei zuzendua bada, euskaraz izango da, ahoz zein idatziz.
  2. Aldiz, jarduera adin guztietako herritarrei zuzendua bada, eta haiekin ahozko harreman zuzena baldin badu, lehenengo hitza euskaraz egingo dio herritarrari, eta ondoren herritarrak egindako hizkuntza-hautuaren arabera jarraituko du. Harremana megafonia bidezkoa bada, bi hizkuntzetan egingo da, euskarari lehentasuna emanez.
  3. Jarduera adin guztietako herritarrei zuzendua bada, eta haiekin idatzizko harremanik baldin badu, herritarren esku jartzen dituen idatzizko elementuak euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta, bigarren kasuan, euskarari emango dio lehentasuna.
- Ezohiko kasuetan, betebeharrak horiek progresiboki betetzeko neurria eta modua eta udalak ikuskaritza nola egingo duen oinarri espezifikoetan edo hitzarmenetan zehaztuko dira.
- k) En su caso, respetar y utilizar en debida forma la infraestructura y el dominio público cedidos para la realización de la actividad. Si tras la celebración de la actividad se constatará la existencia de desperfectos o menoscabos en alguno de ellos, el importe de valoración de los mismos podrá ser deducido, previa la tramitación del oportuno expediente, de la subvención.
- l) No se admitirá ningún contenido de apoyo a ningún partido o grupo político ni en las actividades objeto de la subvención, ni en los soportes de difusión, ni en las infraestructuras que se coloquen para la celebración objeto de subvención.
- m) En base a la habilitación que confiere al Ayuntamiento la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi y desarrollando lo establecido en el artículo 7.2, hará cumplir a las entidades beneficiarias de las subvenciones, en función de las características de las actividades que organicen, los siguientes criterios lingüísticos:
1. Cuando la actividad vaya dirigida a menores de 16 años, la misma se realizará en euskera, tanto oralmente como por escrito.
  2. En cambio, cuando la actividad vaya dirigida a ciudadanos de todas edades y tenga relación oral directa con los mismos, la conversación con el ciudadano se iniciará en euskera y se continuará en función de la elección lingüística del ciudadano. Cuando la relación sea por megafonía, se realizará en ambas lenguas, dando prioridad al euskera.
  3. Cuando la actividad vaya dirigida a ciudadanos de todas edades y tenga relación escrita con los mismos, los elementos escritos que se pongan a disposición de los ciudadanos se darán a conocer en euskera o bien en euskera y castellano, dando en este caso prioridad al euskera.
- En casos extraordinarios, se determinarán en las bases específicas o en los convenios la medida y la forma de cumplir dichas obligaciones y la manera en que lo inspeccionará el ayuntamiento.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoetan jasotako betebeharrak ez dira aplikatuko behar bezala justifikatuta dauden eta horiek betetzea eragozten duten salbuespenezko egoeretan aurkitzen diren laguntzetan.

- n) Diru-laguntza ematearen kariaz ezarri zaizkion betebeharrak partikularrak.
- o) Jasotako funtsak itzultzea, itzultze horretarako legeko arrazoiak tarteko direnean eta, bereziki, entitate onuraduna desegin denean, emandako diru-laguntza osoa edo haren parte bat erabili ez denean, edo emandako laguntza diruz lagundutako proiektuan edo jardueran aurreikusitako xedeetarako bideratu ez denean.
- p) Entitate edo talde onuradunak Lasarte-Oriako Udalak sustatutako Berdintasun Planaren helburuak bete beharko ditu eta ondorengo konpromisoak hartu beharko ditu bere gain:
  - 1. Diru-laguntzaren programa, proiektu eta jardueren sustapena egiteko elementu gisa lantzen diren kartel, testu eta agirietan jasotako hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo du.
  - 2. Genero-ikuspegia barneratuko du lan-ildo gisa, eta Genero Berdintasunaren alorreko balioak defendatu eta sustatuko ditu diru-laguntzaren xede diren programa, proiektu eta jardueretan.
  - 3. Udalak Emakumearen Nazioarteko Egunean eta Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean garatzen dituen ekimenetan lagunduko du bere ahalmenen neurrian.

En cualquier caso, las obligaciones recogidas en los párrafos anteriores no serán de aplicación para aquellas ayudas en las que concurren circunstancias excepcionales y debidamente justificadas que impidan su cumplimiento.

- n) Las obligaciones particulares que le hubieran sido impuestas con motivo de la concesión de la subvención.
- o) Proceder al reintegro de los fondos percibidos cuando medien las causas legales de reintegro y, en particular, cuando se hubiera disuelto la entidad beneficiaria o no se hubiera dispuesto total o parcialmente de la subvención concedida o la ayuda concedida no se hubiera destinado a los fines previstos en el proyecto o actividad subvencionada.
- p) La entidad o grupo beneficiario deberá cumplir con los objetivos del Plan de Igualdad promovido por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria y adquirirá los siguientes compromisos:
  - 1. Realizar un uso no sexista del lenguaje e imágenes en los contenidos de los carteles, textos y documentos que se elaboren como elementos de promoción de los programas, proyectos y actividades objeto de la subvención.
  - 2. Incorporar la perspectiva de género como línea de trabajo y la defensa y promoción de valores en materia de Igualdad de Género en los programas, proyectos y actividades objeto de la subvención.
  - 3. Colaborar, en las medidas de sus posibilidades, con las iniciativas que el Ayuntamiento desarrolle el Día Internacional de la Mujer y el Día Internacional contra la Violencia de Género.

Artikulu honetan adierazitako edozein obligazio betetzen ez badu, berekin ekarriko du dagokion espedientea abiatzea eta diru-laguntza errebisatzea, bai eta, hala badagokio, baliogabetzea, murriztea edo itzularaztea ere, eta, era berean, denbora batez jarduera horiek egiteko diru-laguntzak ukatzea erabaki ahalko da; egindako arau-haustearen larritasunari erreparatuz eta Diru-laguntzen Ordenantzan adierazitako santzio-erregimenaren arabera zehaztuko da denbora hori.

2.- Betebehar tributarioak eta Segurantzaren Sozialarekikoak bete izana organo eskudunak igorritako administrazio-ziurtagiri positiboaren bitartez egiaztatuko beharko da.

3.- Onuraduna bere betebehar tributarioetan egunean aurkitzen dela ulertu beharko da, ondorengo xehetasunak betetzen direnean:

- \* Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda egotea eta alta-agiriaren edo azken ordainagiriaren bitartez egiaztatzea.
- \* Lasarte-Oriako Udalarekin tributu-izaerako inolako zorrik edo santziorik ez edukitzea.
- \* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari, bi horien konturako atxikipenei edo konturako ordainketei edo ordainketa zatikatuei eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion aitorpenak edo sarrera-agiriak aurkeztu izatea.
- \* Diru-sarreraren eta ordainketen urteko zerrenda aurkeztu izatea.

Azken bi xehetasun horiek aitorpenak eta sarrera-agiriak aurkeztuz egiaztatuko dira, baldin eta horiek aurkezteko arauzko epea diru-laguntza eskatzeko dataren aurreko hamabi hilabeteen barruan amaitu bada.

Udaleko Ogasunarekiko betebehar tributarioak bete izanari buruzko egiaztapena ofizioz egingo du Udalak.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones recogidas en este artículo supondrá la incoación del expediente correspondiente y la revisión de la subvención y en su caso la anulación, disminución o devolución de la misma, pudiendo decidirse, asimismo, la denegación de ayudas económicas para su celebración por período que se determinará atendiendo a la gravedad de la infracción cometida y de acuerdo al régimen sancionador señalado en la Ordenanza de subvenciones.

2.- El cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social se acreditarán mediante certificación administrativa positiva expedida por el órgano competente.

3.- Deberá entenderse que el beneficiario se halla al corriente de sus obligaciones tributarias cuando concurren las siguientes circunstancias:

- \* Estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas y se acredite mediante el alta o el último recibo.
- \* No tener deudas o sanciones de naturaleza tributaria con el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.
- \* Haber presentado las declaraciones o documentos de ingreso del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades, de los pagos a cuenta o fraccionados o de las retenciones a cuenta de ambos y del Impuesto sobre el Valor Añadido.
- \* Haber presentado la relación anual de ingresos y pagos.

Estas dos últimas circunstancias se acreditan presentando las declaraciones y documentos de ingreso cuyo plazo reglamentario de presentación hubiese vencido durante los doce meses inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud de la subvención.

El cumplimiento de las obligaciones tributarias con la Hacienda municipal lo realizará de oficio el Ayuntamiento.



4.- Diru-laguntzaren onuradunak Segurantzaren Sozialarekiko obligazioak betetzen dituela joko da ondorengo kasu hauetan:

- \* Entitatea Segurantzaren Sozialaren inskribatuta dagoenean edo onuraduna, enpresa-jardueraren arabera edo subjektu erantzulearen arabera, dagokion Segurantzaren Sozialaren Erregimenean afiliatua eta alta emanda dagoenean.
- \* Bere zerbitzura eduki ditzakeen langileak alta emanda dituen.
- \* Kuoten eta horien diru-bilketarako gainerako kontzeptuen ordainketan, edo obligazio horiek bete ez izanak eragindakoen ordainketan egunean dagoenean.

5.- Diru-laguntzen onuradunak 3. apartatuak aipagai dituen zerga-obligazioen mende ez daudenean, edota Segurantzaren Sozialaren enpresa gisa inskribatuta egotera edo dagokion erregimen berezian alta emanda egotera behartuta ez daudenean, ez dute inolako ziurtagiririk aurkeztu beharko eta aski izango da xehetasun horiek agerrarazten dituen erantzukizuneko deklarazioa.

### III. KAPITULUA KUDEAKETAREN PROZEDURA

#### 11. Artikulua.- Diru-laguntzak arautzeko oinarriak eta/edo arauak.

Diru-laguntzak edo bestelako laguntzak emateko oinarri eta/edo arau erregulatzailerik, gutxienez, ondoko eduki hauek jasoko dituzte:

- a) Laguntzaren edo diru-laguntzaren xedearren, baldintzen eta helburuaren definizio argia, zehatza eta doia.
- b) Diru-laguntza ematearen ondoriozko betebeharrak ekonomikoei erantzuteko kreditu egokia eta nahikoa badagoela, adieraziz zein den aurrekontuetan aurreikusitako kontu-saila eta, kasua bada, zenbatekoa den haietara xedaturiko gehienezko kopuru globala.
- c) Diru-laguntza lortzeko, onuradunak bete beharreko baldintzak, eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak eta eskatzen zaizkion baldintzen egiaztagirak.

4.- Se considera que el beneficiario de la subvención cumple sus obligaciones de Seguridad Social cuando concurren las siguientes circunstancias:

- \* Que la entidad se halle inscrita en la Seguridad Social o que el beneficiario se encuentre afiliado y de alta en el Régimen de la Seguridad Social que corresponda, por razón de la actividad empresarial o sujeto responsable.
- \* Haber dado de alta a los trabajadores que tuviera a su servicio.
- \* Estar al corriente en el pago de las cuotas y demás conceptos de recaudación conjunta de las mismas, o las derivadas del incumplimiento de dichas obligaciones.

5.- Cuando los beneficiarios de subvenciones no estén sujetos a las obligaciones tributarias que se refiere el apartado 3 ni resulten obligados a estar inscritos como empresa en la Seguridad Social o en alta en el régimen especial correspondiente, no deberán presentar certificado alguno y bastará con su declaración responsable en que haga constar tales circunstancias.

### CAPITULO III PROCEDIMIENTO DE GESTION

#### Artículo 11.- Bases y/o normas reguladoras de las subvenciones.

Las bases y/o normas reguladoras de la concesión de las ayudas o subvenciones contendrán como mínimo los siguientes extremos:

- a) Definición clara, concreta y precisa del objeto, condiciones y finalidad de la ayuda o subvención.
- b) La existencia de crédito adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico que se deriven de la concesión de la subvención, indicando la partida presupuestaria prevista, y, en su caso, el importe global máximo destinado a las mismas.
- c) Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, documentación a aportar por los solicitantes y la acreditación de los requisitos exigidos.



- d) Eskabideak zein forma eta epetan aurkeztu behar dituzten eta zein zentro edo egoitzari zuzendu beharko dizkioten.
- e) Diru-laguntza bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak adieraztea, bai halaber diru-laguntza emateko proposamena egiteaz arduratuko den organoaren osaera.
- f) Diru-laguntza ematean aplikatu behar diren forma eta irizpide objektiboak, eta, hala badagokio, horien ponderazioa.
- g) Laguntza edo diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa edo hori zehazteko irizpideak, eta, kasua hala bada, salbuespen gisa, laguntzara edo diru-laguntzara xedaturiko gehienezko zenbateko osoa organo eskudunak hainbanatu ahal izateko aukera.
- h) Onuradunak diru-laguntza ematearen helburua bete duela eta jasotako funtsak behar bezala aplikatu dituela justifikatzeko duen epea eta baliozko forma, bai eta justifikaziorako baliozkoa den dokumentazioa ere.
- i) Aldi berean beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliakizun batzuk izateko aukera eta, kasua hala bada, horiek jasotzeko bateraezintasuna. Bateragarritasuna onartzen bada, gehiegizko finantzaketa saihesteko mugak edo irizpideak ezarri beharko dira nahitaez.
- j) Diru-laguntza ordaintzeko moduak eta epeak, eta, kasua hala bada, konturako ordainketak eta pagamendu aurreratuak egiteko aukera; pagamendu aurreratuak —eta, horrela badagokie, konturako ordainketak— egiten diren kasuetarako, onuradunak jarri beharreko bermeen epea, ordaintzeko modua eta erregimen berezia, bai halaber interes publikoak babesteko beharrezkotzat jotzen diren bestelako berme-neurriak ere.
- k) Laguntza edo diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak ez badira betetzen edo jasotako diru-kopurua gauzatutako jardueraren kostua baino handiagoa bada, eskuratutako funtsak itzultzeko betebeharra.
- d) Forma y plazo de presentación de las solicitudes y centro o dependencia al que habrán de dirigir las mismas.
- e) Indicación de los órganos competentes para la instrucción y resolución de la misma, así como la composición del órgano encargado de efectuar la propuesta de concesión.
- f) Forma y criterios objetivos que han de regir la concesión de la subvención, así como, en su caso, la debida ponderación de los mismos.
- g) Cuantía individualizada de la ayuda o subvención o criterios para su determinación y, en su caso de forma excepcional, la posibilidad de que por el órgano competente pueda proceder al prorrateo del importe global máximo destinado a subvención o ayuda.
- h) Plazo y forma válida de justificación, por el beneficiario, del cumplimiento de la finalidad para la que se concede la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos, así como la documentación válida a los efectos de justificación.
- i) Posibilidad de concurrencia con otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos y, en su caso, incompatibilidad con su percepción. En el caso de admitirse la compatibilidad, deberán establecerse necesariamente los límites o criterios para evitar la sobrefinanciación.
- j) Formas y plazos de pago de la subvención y, en su caso, la posibilidad de realizar abonos a cuenta y pagos anticipados, plazo, modo de pago y régimen particular de garantías que deberán aportar los beneficiarios para los supuestos de pagos anticipados y, en su caso, para los abonos a cuenta, así como aquellas otras medidas de garantía en favor de los intereses públicos que puedan considerarse precisas.
- k) Obligación de reintegro de los fondos percibidos en el supuesto de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda o subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.



Diru-laguntzak ematearen kariaz ezarritako baldintzen ez-betetze posibleak mailakatzeko irizpideak finkatuko dira. Irizpideok aplikatu beharko dira onuradunak azkenean zenbat jaso behar duen erabakitzeko edo, hala badagokio, zenbatekoa den itzuli beharrekoa, eta proportzionaltasunaren printzipioari erantzun beharko diote.

- l) Prozedura ebazteko epea eta epearen barruan ebazpenik ez ematearen ondorioak, diru-laguntzen oinarri espezifikoak eta haien deialdiaren aurka jar daitezkeen errekurtsoak, eta errekurtso horiek zein organo judizial eta zein epetan aurkeztu behar zaizkion. Dena dela, horretaz gain, interesatuek egoki deritzoten beste edozein errekurtso jarri ahalko dute.
- m) Notifikatzeko bidea, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Lege urriaren 1ekoak 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

## **12. Artikulua.- Deialdia.**

1.- Organo eskumendunak onetsitako deialdiaren bitartez ekingo zaio laguntza edo diru-laguntza emateko prozedurari, dagozkion oinarri bereziekin bat etorriz, zuzeneko emakida izendunen kasuan izan ezik.

2.- Ematekoak diren diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa deialdi espezifiko bakoitzean zehaztuko da, betiere aurrekontuetan onetsitako diru-horniduren arabera; hala ere, horrek ez du eragotziko geroago horiek osatu edo handitu ahal izatea.

3.- Aurrekontu-ekitaldi batean barrena ondoz ondoko hautapen-prozedura batzuk egiteko aukera emango duten deialdiak ezarri ahal izango dira diru-laguntza lerro berarentzat (Deialdi irekia).

Se fijaran los criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.

- l) Plazo de resolución del procedimiento y efectos de la falta de resolución en plazo, expresión de recursos que procedan contra las bases específicas de las subvenciones y su convocatoria, órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlo, sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

- m) Medio de notificación, de conformidad con lo establecido en el artículo 40 y ss. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

## **Artículo 12.- Convocatoria.**

1.- El procedimiento para la concesión de una subvención o ayuda se iniciará mediante convocatoria aprobada por el órgano competente, y de conformidad con sus correspondientes bases específicas, excepto para los de concesión directa nominativa.

2.- El Importe máximo de las subvenciones a conceder se fijará en cada convocatoria específica, siempre de conformidad con las dotaciones presupuestarias aprobadas y sin perjuicio de su posterior suplemento o ampliación.

3.- Se podrán establecer convocatorias que permitan la realización de varios procedimientos de selección sucesivos a lo largo de un ejercicio presupuestario, para una misma línea de subvención (Convocatoria abierta)



4.- Halaber, deialdiaren ebazpena egingo den aurrekontu-ekitaldiaren aurreko batean onetsi ahal izango da deialdi hori, betiere gastuaren exekuzioa ebazpena egingo den urte berean egiten bada eta ondorengo baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a) Kreditu egokia eta nahikoa egotea Udalaren Aurrekontu luzatuetan dagokion gastuari aurrekontu-estaldura eman ahal izateko.
- b) Kreditu egokia eta nahikoa egotea Udalaren Aurrekontu Orokorren proiektuan Udal Batzarraren onespeneraren mende jarritakoaren hurrengo ekitaldian.

Kasu hauetan, deialdian ageri den gehieneko zenbateko osoak gutxi gorabeherako izaera edukiko du, eta horrenbestez, berariaz agerrarazi beharko da emakidaren ebazpena egiten denean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzaren mende geratzen dela diru-laguntzak ematea.

Aurrekontuen espedientean onetsia geratzen den aurrekontu-kreditua abian den deialdi publiko baterako hasiera batean estimatutako zenbatekoa baino handiagoa den kasuetan, zuzenean aplikatuko zaio, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

5.- Diru-laguntzen deialdia baimendu ahal izango da, baldin eta horien gastua emakidaren ebazpena egingo den ekitaldiaren hurrengoetara egotzi badaiteke.

Eman beharreko gehieneko zenbateko osoa adierazi beharko da deialdian, baita urteka izango duen banaketa ere, ezarritako lege-mugen barruan betiere, emango diren diru-laguntzek eragiten duten gastua zein unetan gauzatzea aurreikusten den kontuan izanik.

6.- Diru-laguntzen deialdi publikoa onesteko edo diru-laguntza zuzenean emateko proposamen guztiek memoria bat jaso beharko dute eta bertan, kasuen arabera, aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen baldintzez gain, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak zehaztu beharko dira, baita emaitzak ebaluatzeko aurreikusitako prozedurak eta adierazleak ere.

4.- Asimismo, la convocatoria podrá aprobarse en un ejercicio presupuestario anterior a aquél en el que vaya a tener lugar la resolución de la misma, siempre que la ejecución del gasto se realice en la misma anualidad en que se produce la resolución y se cumpla alguna de las siguientes circunstancias:

- a) Exista crédito adecuado y suficiente para la cobertura presupuestaria del gasto de que se trate en los Presupuestos prorrogados del Ayuntamiento.
- b) Exista crédito adecuado y suficiente en el proyecto de Presupuestos Generales del Ayuntamiento del próximo ejercicio que haya sido sometido a la aprobación del Pleno.

En estos casos, la cuantía total máxima que figure en la convocatoria tendrá carácter estimado por lo que deberá hacerse constar expresamente en la misma que la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

En los supuestos en los que el crédito presupuestario que resulte aprobado en el expediente de los Presupuestos fuera superior a la cuantía inicialmente estimada en una convocatoria pública en curso, se aplicará directamente a la misma sin necesidad de nueva convocatoria.

5.- Podrá autorizarse la convocatoria de subvenciones cuyo gasto sea imputable a ejercicios posteriores a aquél en que recaiga resolución de concesión.

En la convocatoria deberá indicarse la cuantía total máxima a conceder, así como su distribución por anualidades, dentro de los límites legales establecidos, atendiendo al momento en que se prevea realizar el gasto derivado de las subvenciones que se concedan.

6.- Toda propuesta de aprobación de convocatoria pública de subvenciones o de concesión directa de subvención deberá incorporar una memoria en la que, además de incluir los extremos que, según los casos, exija la normativa de aplicación, se identifiquen los objetivos y los efectos que se pretendan conseguir, así como los procedimientos e indicadores previstos para evaluar los resultados.



7.- Bai diru-laguntzak eta gainerako laguntzak emateko oinarri espezifikoak, bai horiei dagozkien deialdiak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren Webgunean argitaratu beharko dira, eta, ahal dela, ezagutzera emango dira komunikabide lokaletan.

### **13. Artikulua.- Eskaera.**

1.- Eskaera pertsona interesatuak berak egingo du, deialdi bakoitzean aplikatzekoa den araudian ezartzen denaren arabera, eta prozedura administratiboaren arauetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu, betiere eredu normalizatuari egokituta (T004.1 Eredua).

2.- Baldin eta interesatua Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Komunen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan aurreikusitako subjektuetako bat bada (elkarteak, enpresak, etab.), obligatua dago baliabide elektronikoen bidez aurkeztera, udalaren webgunearen bitartez ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)). Gainerako subjektuek modu berean edo norbera agertuta aurkeztu ahalko dute, behin bete eta sinatutakoan, Lasarte-Oriako Udaleko Sarreraren Erregistro Orokorrean (Okendo Plaza 1), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era bitartean, edota urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako formen bidez.

3.- Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko beharko dira nahitaez, laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan eta /edo deialdietan eskatzen den dokumentazioaz gain eta eskatzaileak interesgarritzat jo ditzakeen beste agiriez gain:

- a) Onuradun izateko baldintza betetzen duela eta betebeharrak tributarioen eta Segurantzaren Sozialarekiko ordainketan egunean dagoela dioen erantzukizuneko deklarazioa, horretarako dagoen eskabide-eredua erabiliz (T004.1.0 Eredua).

7.- Las bases específicas de la concesión de ayudas y subvenciones, y su convocatoria correspondiente, deberán ser publicadas en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, en la web municipal y, en la medida de lo posible, se darán a conocer en los medios de comunicación locales.

IND

### **Artículo 13.- La solicitud.**

1.- La solicitud se realizará por la persona interesada, de conformidad con lo que se establezca en la normativa aplicable a cada una de las convocatorias, y deberán reunir los requisitos establecidos en las normas de procedimiento administrativo, ajustándose, en su caso, al modelo normalizado (Modelo T004.1).

2.- En el caso de que el interesado fuera uno de los sujetos contemplados en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (asociaciones, empresas, etc.) está obligado a presentarlo por medios electrónicos a través de la web municipal ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)). Los demás sujetos podrán presentarlo de la misma manera o presencialmente, una vez cumplimentado y firmado, en el Registro General de Entrada del Ayuntamiento de Lasarte-Oria (Okendo Plaza nº 1) de lunes a viernes en horario de 9:00 a 13:30 hora o mediante las demás formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

3.- Las solicitudes deberán ir acompañadas obligatoriamente, sin perjuicio de la documentación que sea exigida en las bases específicas y/o convocatorias de cada programa de ayudas y de aquella otra que el solicitante considere de interés, de la siguiente documentación:

- a) Declaración responsable de cumplir la condición de beneficiario y de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, utilizando para ello el modelo de solicitud existente al efecto (Modelo T004.1.0).



- b) Memoria, elkarte edo entitatearen jarduera orokorrarena nahiz diruz laguntzea nahi duten proiektu, jarduera edo programarena, eta adieraziko dituzte zer helburu lortu nahi dituzten proiektu, jarduera edo programa horrekin, bai halaber zein diren, eskatzailearen iritziz, udalaren laguntzaren edo diru-laguntzaren merezitzaile egiten duten arrazoiak edo motiboak. Horretarako eredua erabiliko da (T004.1.1 Eredua).

Salbuespenez, eta guztira 30.000,00 eurotik beherakoak diren diru-laguntzen eskabideak egiten diren kasurako, laguntzaren xedeko proiektuari edo jarduerari erreferentzia egiten diona bakarrik izango da nahitaezkoa.

Eredu berean zehaztuko dira deialdi espezifiko bakoitzaren arabera diru-laguntzak emateko ebaluatuko diren alderdiak.

- c) Proiektua osatzen duten Gastu guztien Zerrenda sailkatu bat, egin beharreko gastu mota eta horren zenbatekoak zehaztuz, horretarako dagoen eredua erabiliz (T004.1.2 Eredua).
- d) Zinpeko deklarazioa, zeinetan adieraziko baitu, kasua hala bada, badituela beste diru-sarrera batzuk (kuotak, material-salmentak, fakturazioak, beste erakunde batzuen diru-laguntzak eta abar) eta/edo diru-laguntza eskatu duela beste departamentu, instituzio eta abarretan; horretarako, T004.1.3 eredua erabiliko da.
- e) Gastuen eta sarreraren aurrekontua, entitate edo elkartearen jarduera orokorrarena (ekintza guztiak) nahiz diru-laguntza eskatzen deneko proiektu, jarduera edo programa espezifikoena; horretarako eredua erabiliko da (T004.1.4 Eredua).

4.- Udaleko Erregistroan edo beste erregistro publiko batean ageri diren elkarteek horren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, eta hala egokituz gero, horiek eskuratu ahal izateko adierazitako dokumentazioa.

- b) Memoria tanto de la actividad general de la asociación o entidad, como del proyecto, actividad o programa específico que pretende ser subvencionado, con indicación de los objetivos perseguidos con dicho proyecto, actividad o programa, así como de los motivos o razones que, a juicio del solicitante, le hacen merecedora de la ayuda o subvención municipal; utilizando para ello el modelo (Modelo T004.1.1).

Excepcionalmente, y para el supuesto de solicitudes de subvención que, en su conjunto, sean de un importe inferior a 30.000,00 euros, únicamente será obligatoria la que haga referencia al proyecto o actividad objeto de la ayuda.

En el mismo Modelo se detallaran los aspectos que serán evaluados para la concesión de subvenciones según cada convocatoria específica.

- c) Una Relación clasificada de todos los Gastos que comportan el proyecto, especificando el tipo de gasto a realizar y sus importes, utilizando para ello el modelo (Modelo T004.1.2).
- d) Declaración jurada en las que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos (cuotas, ventas de material, facturaciones, subvenciones de otros entes, etc.) y/o solicitudes de subvención realizadas ante otros departamentos, instituciones, etc.; utilizando para ello el modelo (Modelo T004.1.3).
- e) Presupuesto de Gastos e Ingresos, tanto de la actividad General (todas las actividades) de la entidad o asociación, como de los proyectos, actividades o programas específicos para los que se solicite la subvención; utilizando para ello el modelo (Modelo T004.1.4).

4.- Las asociaciones que figuren en el Registro municipal u otro registro público deberán presentar acreditación del mismo, y en su caso la documentación que se encuentre señalada para acceder a los mismos.



5.- Orokortasunez, eta beste epe batzuk jarrita dituzten laguntza-programak izan ezik, 30 laneguneko epean aurkeztu beharko dira eskaerak, deialdi bakoitza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

6.- Eskabidean hutsunerik badago edo ez baditu beharrezko dokumentu guztiak erantsi, eskatzaileak, aldez aurretik errekerimendua eginda, 10 eguneko epean erremediatu beharko ditu, notifikazioa jasotzen duenetik hasita, zeinetan adieraziko baitzaio, hori egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela; horretarako, aurretiaz ebazpena eman beharko da, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Komunen 39/2015 Lege urriaren 1ekoak 21. artikuluan ezarritako terminoetan.

7.- Dena dela, aurkeztutako dokumentazioaz gain, Lasarte-Oriako Udalak beharrezko jotzen duen informazio osagarria eskatu ahalko die pertsona fisiko edo entitate eskatzaileei, aurkeztutako jardura edo programa hobeto baloratzeko xedez.

#### **14. Artikulua.- Instrukzioa.**

1.- Prozeduraren instrukzioa ordenantza honetan eta deialdiaren oinarrietan edo diru-laguntza erregulatzeko araudian ezarritakoaren arabera egingo da, eta, horrez gain, prozedura administrazio komunen arauetan ezarritakoa beteko da, ebazpena emateko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeke.

2.- Aurkeztutako eskabidea tramitatzea, dena delako laguntza-programen arabera, administrazio-unitateei edo udal-arloei egokituko zaie, eta horiek arduratuko dira eskumenen eremuari dagozkion proiektuak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

Proiektuek departamentu edo udal-arlo bati baino gehiagori eraginez gero, aztertu egingo dira eta haien txosten global bat egingo da, inplikaturik dauden administrazio-unitate edo sailek batera sinatutako agiri edo txosten baten bidez.

5.- Con carácter general, y con la excepción de aquellos programas de ayuda que tengan establecidos otros plazos, las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 30 días hábiles, contado a partir del día siguiente al de publicación de cada convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

6.- Las deficiencias en la solicitud y la omisión en los documentos preceptivos deberán subsanarse previo requerimiento, en el plazo de 10 días desde la notificación, en la que se indicará que si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

7.- En todo caso, además de la documentación presentada, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá requerir a las personas físicas o entidades solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad o programa presentado.

IND

#### **Artículo 14.- La Instrucción.**

1.- La instrucción del procedimiento se realizará de conformidad con lo establecido en esta ordenanza y en las bases de la convocatoria, o en la normativa reguladora de la subvención, y de conformidad con lo dispuesto en las normas de procedimiento administrativo común para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe pronunciarse la resolución.

2.- La tramitación de las solicitudes presentadas corresponderá, por razón del programa de ayudas que se trate, a las diferentes unidades administrativas o áreas municipales, que serán los encargados del examen y evaluación de los proyectos correspondientes al ámbito de sus competencias.

Caso de proyectos que afecten a más de un departamento o área municipal, se procederá al análisis e informe global del mismo, mediante documento o informe suscrito conjuntamente por los unidades administrativas o áreas implicadas.



3.- Deialdia sustatzen duen udal-zerbitzu bakoitzeko arduradun teknikoari egokituko zaio diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukzioa.

4.- Instrukzio-fasea eskaera horietako bakoitzaz Organo instrukzio-gileak egingo duen aurre-ebaluazioarekin hasiko da, zeinetan egiaztatu beharko baitute ea eskatzaileek diru-laguntzaren onuradun-izaera eskuratzeko ezarririk dauden baldintza guztiak betetzen dituzten eta ea aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia den.

5.- Organo instrukzio-gileak edo, hala egokituz gero, Balorazioko Batzordeak eskabideak aztertu ondoren, egindako ebaluazioa dagokion kide anitzeko organoari aurkeztuko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.

OLOaren 22.1 artikuluan aurreikusitako ondorioei begira, emakida-proposamena egiteko eskumena duen kide anitzeko organoaren barruan, gutxienez, kide hauek izango ditugu: dagokion Departamentuko zinegotzi lehendakaria, Zerbitzuko burua edo gai-arloaren arabera eskumena duen beste udal-teknikari bat.

Lehiaketetan parte hartzeko prozeduretan, Batzorde Informatiboak emakida-proposamena egiteko eskumena duen kide anitzeko organo gisa jokatu du, eta dagokion Irizpena emango du horri begira.

6.- Aipaturiko txosten hori edo —kasua hala bada— Batzordearen irizpena oinarritzat harturik, instruktoreak behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, eta horren berri eman beharko dio interesatuari, deialdiak ezarritako moduan. Interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

7.- Ebazpenerako proposamenean adierazi beharko da diru-laguntza zein eskatzailearentzat edo eskatzaile-zerrendarentzat proposatzen den eta haren zenbatekoa, eta zehaztu beharko da haren ebaluazioa eta ebaluazio hori egiteko aplikatu diren balorazio-irizpideak.

3.- La instrucción del procedimiento de concesión de las subvenciones corresponderá al responsable técnico de cada servicio municipal que promueva la convocatoria.

4.- La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación que el organo instructor realice de las distintas solicitudes, y consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiario de la subvención por parte de las personas solicitantes y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

5.- Una vez analizadas las solicitudes por el órgano instructor, o en su caso por la comisión de Valoración, se presentará la evaluación realizada al correspondiente órgano colegiado, para su informe correspondiente.

A los efectos previstos en el art. 22.1 de la LGS, el órgano colegiado competente para la propuesta de concesión estará compuesto como mínimo, por el Concejal presidente del Departamento correspondiente, el Jefe de Servicio u otro técnico municipal competente por razón de la materia.

En los procedimientos de concurrencia competitiva la Comisión Informativa actuará como órgano colegiado competente para la propuesta de concesión emitiendo al efecto el Dictamen correspondiente.

6.- Basándose en el citado informe, o en su caso Dictamen de la Comisión, el instructor efectuará la propuesta de resolución provisional la cual deberá comunicarse al interesado en la forma que establezca la convocatoria. El interesado tendrá un plazo de 10 días a fin de presentar alegaciones.

7.- La propuesta de resolución deberá expresar el solicitante o relación de solicitantes para los que se propone la concesión de la subvención, y su cuantía, especificando su evaluación y criterios de valoración seguidos para efectuarla.



8.- Interesatuek agertutakoez bestelako egitaterik nahiz alegazio eta frogarik prozeduran ageri ez denean eta kontuan hartzen ez denean, entzunaldiaren tramitea alde batera utzi ahalko da. Kasu horretan, behin-behineko ebazpenerako egindako proposamena behin betikoa izango da.

9.- Baldin eta diru-laguntza emateko behin-behineko ebazpenerako proposameneko zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri zena baino txikiagoa bada, onuradunak bere eskabidea birformulatu ahalko du, bere konpromisoak eta diru-laguntzaren baldintzak proposamen horretara doitu. Horrek berekin ekar dezake emandako diru-laguntza doitzea, baina liberatutako kreditua ez da gainerako eskabideen artean banatuko.

10.- Proiektuak baloratzeko, balorazio-batzordeak eratu ahalko dira, eta horien osaera eta funtzioak dagokien deialdiko arau espezifikoetan zehaztuko dira.

## **15. Artikulua.- Ebazpena.**

1.- Laguntza edo diru-laguntza emateko ebazpena —edo, kasua hala bada, horiek bideratzeko egiten den hitzarmena— behar bezala arrazoitu beharko da, eta, edozer ebazten dela ere, beti akreditatu beharko da zein diren ebazpen horren funtsak, diru-laguntza emateko araua edo deialdiaren oinarriak arautzen dituzten irizpide objektiboei erreferentzia eginda.

2.- Era berean, espresuki agerrarazi beharko dira bertan honako puntu hauek:

- \* Diru-laguntzaren onuraduna edo onuradunen zerrenda.
- \* Diruz lagundutako proiektuari esleitutako kodea.
- \* Diru-laguntzaren xedea.
- \* Proiektuaren kostu totala.
- \* Proiektuaren kostu totaletik diruz lagundutako portzentajea, halakorik badago.

8.- Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados. En este caso, la propuesta de resolución provisional formulada tendrá el carácter de definitiva.

9.- Cuando el importe de la propuesta de resolución provisional de concesión de la subvención, sea inferior al que figuraba en la solicitud presentada, el beneficiario podrá reformular su solicitud ajustando sus compromisos y condiciones de la subvención a dicha propuesta, lo que podrá llevar al ajuste de la subvención concedida sin que el crédito liberado sea objeto de reparto entre el resto de las solicitudes.

10.- Para la valoración de los proyectos podrán constituirse comisiones de valoración, cuya composición y funciones se detallarán las normas específicas de la correspondiente convocatoria.

IND

## **Artículo 15.- La Resolución.**

1.- La resolución de concesión de las ayudas o subvenciones o, en su caso, el convenio a través del cual se canalicen éstas, deberá motivarse debidamente, debiendo, en todo caso, quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen en la norma o bases de la convocatoria.

2.- Asimismo se deberá hacer constar expresamente en la misma los siguientes apartados:

- \* El beneficiario o relación de beneficiarios
- \* El código asignado al proyecto subvencionado
- \* El objeto de la subvención
- \* El coste total del proyecto
- \* El porcentaje del costo final del proyecto subvencionado si lo hubiere.

- \* Diru-laguntzaren zenbatekoa., zeina zehaztuko baita aurreko atalean ezarritako portzentajea aplikatuz —halakorik badago— proiektuaren kostu totalari. Halakorik ez badago, zenbateko hori **“zenbateko jakin”** bat izango da, eta onuradunak bere gain hartuko du jardueraren kostu totalarekiko diferentzia.
- \* Onuradunaren baliabide propioen bidez finantzatutako proiektuaren amaierako kostuaren zenbatekoa edo proportzioa, horrelakorik baldin badago.
- \* Onuradunak bere gain hartutako konpromisoen identifikazio argia.
- \* Diru-laguntza pagatzeko modua eta epeak.
- \* Proiektua gauzatzeko epea.
- \* Justifikatzeko modua eta epeak, ordenantza honen 27. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- \* Laguntza zein xedapenen babesean eman den, eta laguntza edo diru-laguntza erregulatzen duen arauak eta diru-laguntzaren oinarri espezifikoek beharretsitako gainerako baldintzak eta eskakizunak.
- \* Kasua hala bada, gainerako eskabideei espresuki emandako ezezkua eta ezezkoaren arrazoiak.

3.- Laguntza emateko ebazpenean zerrenda ordenatu bat ere gehitu ahalko da (lortutako puntuak adieraziz), zeinetan jasoko baira zein eskabide diren, baldintza guztiak bete arren, onuradun izan ezin direnak, ezarritako kreditua agortu egin delako.

«Itxaron-lista» horretan sartutako eskabideei eman ahalko zaie diru-laguntza, deialdi berri baten beharrik gabe, baldin eta soilik baldin kreditu-liberazio bat gertatzen bada deialdia ezarri zeneko ekitaldi beraren barruan, hasierako onuradunetakoren batek uko egitearen edo proiektuak birformulatzearen ondorioz, edota arlo espezifiko bakoitzaren barruan aurrekontuetako kontu-sail bakoitzari esleitutako kreditua aldatu eta handitu delako.

- \* El importe Subvencionado que vendrá determinado por la aplicación del porcentaje establecido en el apartado anterior, si lo hubiere, sobre le costo total del proyecto. Y si no lo hubiere, el referido importe consistirá en un **"importe cierto"**, asumiendo el beneficiario la diferencia con el coste total de la actividad.
- \* El importe o proporción del costo final del proyecto financiado con recursos propios del beneficiario si lo hubiere.
- \* La identificación clara de los compromisos asumidos por el beneficiario.
- \* La forma y plazos de pago de la subvención.
- \* El plazo de ejecución del proyecto.
- \* La forma y plazos de justificación, conforme a lo dispuesto en los artículos 27 y 28 de esta ordenanza.
- \* La disposición a cuyo amparo se hubiera otorgado y demás condiciones y requisitos exigidos por la norma reguladora de la ayuda o subvención y por las bases específicas de la subvención.
- \* En su caso, la desestimación expresa del resto de solicitudes y las razones de la desestimación.

3.- La resolución de concesión podrá incluir una relación ordenada (con indicación de la puntuación obtenida) de todas las solicitudes que, cumpliendo con todos los requisitos, no puedan obtener la condición de beneficiarios por haberse agotado el crédito establecido.

A los solicitantes incluidos en esta "lista de espera" podrá otorgárseles la subvención, sin necesidad de nueva convocatoria, si y solo si se produjera una liberación de crédito dentro del propio ejercicio en el que se estableció la convocatoria como consecuencia de renuncia, o reformulación de proyectos, de alguno de los beneficiarios iniciales, o bien se modifique y amplíe el crédito asignado a cada partida presupuestaria dentro de cada área específica .



4.- Oinarri espezifikoetan edo dagokion deialdian horrela ezartzen den guztietan, eman gabeko zenbatekoa hainbanatu ahalko da deialdiaren onuradunen artean, betiere gehieneko zenbateko globala gainditu gabe.

5.- Baldin eta kreditu-liberazio bat gertatzen bada hasierako onuradunetakoren batek uko egin diolako, eskatzaileak nahikoak ez direlako edo diruz lagundutako proiektuak osorik edo parte batean gauzatu ez direlako, kreditu liberatu hori erauki ahalko zaie lehenik eta behin, beste deialdi baten beharrik gabe, sortutako "itxaron-listan" sartuta ageri diren eskatzaileei edo, halakorik ezean, deialdiko gainerako onuradunei.

6.- Era berean, ebazpenean bertan adieraziko zaizkie interesatuei ebazpenaren aurka zein errekurso jar ditzaketen, bai halaber zein organo judiziali eta zein epetan aurkeztu behar dizkieten ere; dena dela, interesatuek egoki deritzoten beste edozein bide ere balia dezakete.

7.- Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan. Kasu bakoitzean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera hasiko da epe hori kontatzen. Baldin eta epe horren barruan ebazpen espresurik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

## **16. Artikulua.- Diru-laguntzen zenbatekoen ebazpena aldatzea.**

1.- Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzeak, eta, nolanahi ere, aldi berean estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo enitate publiko nahiz pribatuek emandako laguntzak edo diru-laguntzak jasotzeak, diru-laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezake.

4.- Siempre que así se establezca en las bases específicas o en la respectiva convocatoria, el importe no concedido podrá prorratearse entre los beneficiarios de la convocatoria, sin superar el importe máximo global.

5.- Cuando se produjera una liberación de crédito como consecuencia de renuncia de alguno de los beneficiarios iniciales, insuficiencia de solicitantes o inejecución total o parcial de los proyectos subvencionados, este crédito liberado podrá otorgarse en primer término, y sin necesidad de nueva convocatoria, a los solicitantes que se encuentren incluidos en la "lista de espera" generada y, en su defecto, al resto de los beneficiarios de la convocatoria.

6.- Igualmente, en la resolución se pondrá de manifiesto a los interesados, los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

7.- El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de 6 meses. El plazo se computará, en cada caso, a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Si en dicho plazo no se dictara resolución expresa, la solicitud se entenderá como desestimada.

## **Artículo 16.- Modificación de la Resolución de los importes subvencionados.**

1.- Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones o Entes Públicos o Privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.



2.- Udal diru-laguntza bati buruzko ebazpen irmoaren arabera, onuradunak harekin bateraezina den diru-laguntzaren bat erdiesteko asmoari buruz jakinarazpenen bat jasotzen duenean, edo hura berez erdietsi duenean, berariaz jakinarazi beharko dio xehetasun hori Udalari, eta hark emakidari buruzko ebazpena aldatuko du, egoera berri horretara egokituz, eta onuradunari, berriz, jaso ahal izan dituen funts publikoen itzulketa proportzionala eskatuko zaio.

Onuradunak jakinarazpen hori egiten ez duenean eta Udalak egoera horren berri baduenean, emandako lehen diru-laguntza gal dezala, jasotako funts guztiak itzul ditzala eta, hala egokituz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa jaso zuen unetik hura benetan itzultzen duen egunera arte dagozkion berandutza-interesak itzul ditzala ebatziko da.

3.- Onuradunak, behin diru-laguntzaren xedeak betetakoan eta aplikatu gabeko geldikinak lortu dituenean, organo laguntza-emaileari baimena eskatu ahalko dio geldikin hori proiektuan bertan edo izaera bera edo antzekoa duten eta diruz laguntzekoak diren beste jarduera batzuetan gertatu diren soberako gastuetan erabiltzeko; betiere diru-laguntza bakoitzaren oinarri espezifikoei espresuki horrela jasota badago.

## **17. Artikulua.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.**

1.- Diru-laguntza jaso dezakeen proiektu bat finantzatzeko duten baliabideak kontuan hartzeko garaian, bi egoera bereiziko dira:

- a) Proiektu hori eskatzaileak urtero betetzen dituen jarduera guztiei buruzkoa baldin bada, baliabide propioak, horrelakorik egonez gero, finantzaketa-iturri gisa zenbatuko dira.
- b) Proiektua jarduera zehatz eta berezi bati buruzkoa baldin bada, eskatzaileak jasotzen dituen kanpo-baliabideak bakarrik zenbatuko dira finantzaketa-iturri gisa, eta salbuetsita geratuko dira erakundearen baliabide propioak.

2.- Cuando el beneficiario por resolución firme de una subvención municipal, reciba notificación de la posibilidad de obtener una subvención incompatible con aquella, o la hubiera efectivamente obtenido, deberá comunicarlo expresamente al Ayuntamiento quien modificará la resolución de concesión adaptándolo a la nueva circunstancia exigiéndose al beneficiario el reintegro proporcional de los fondos públicos que hubiese percibido.

Cuando el beneficiario omitiera dicha comunicación y el Ayuntamiento tuviera conocimiento de dicha circunstancia, se resolverá la pérdida de la primera subvención concedida, el reintegro de todos los fondos percibidos y, en su caso, los intereses de demora que correspondan desde el momento en que se percibió el importe de la subvención hasta el día en que, efectivamente, se proceda a su devolución.

3.- El Beneficiario, una vez cumplidos los objetivos de la subvención y cuando haya obtenido remanentes por gastos no aplicados, podrá solicitar al órgano concedente la autorización para utilizarlo en el exceso de gastos que se hayan producido en el propio proyecto o en otras actividades subvencionables de la misma o análoga naturaleza; siempre y cuando así venga recogido expresamente en las bases específicas de cada subvención .

## **Artículo 17.- Financiación de las actividades subvencionadas.**

1.- A la hora de considerar los recursos que financian un proyecto a subvencionar se distinguen dos situaciones:

- a) Si el proyecto se refiere al conjunto de actividades anuales que desempeña el solicitante los recursos propios, si los hubiere, computan como fuente de financiación.
- b) Si el proyecto se refiere a una actividad concreta y específica, solo computaran como fuente de financiación los recursos externos que reciba el solicitante, excluyéndose los recursos propios de la entidad.



Nolanahi ere, diru-laguntza jasotzen duen jarduera onuradunaren baliabide propioekin finantzatu da dagokion zenbateko edo proportzioan, baldin eta dagokion deialdian, emakida-erabakian edo hitzarmenean horrela ezartzen bada. Ekarpen hori, betiere horren zenbatekoa eta jatorria adieraziz, diru-laguntza jaso duen jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera, baliabide edo diru-laguntza batzuen zerrenda xehakatuaren bitartez egiaztatu beharko da, justifikazio-kontua osatzen duen dokumentazio gisa eskatzen baita.

2.- Izaera orokorrez, eskatzaileak aurkeztu duen eta diru-laguntza jaso duen proiektu edo jardueraren aurrekontua, edo horren ondorengo aldaketena, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta hori, proiektuaren edo jardueraren amaierako kostuaren ehuneko gisa kalkulatu da. Kasu honetan, Udalaren aldetik gehiegizko finantzaketa ote dagoen kalkulatzeko, erreferentzia gisa ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen proportzioa erabiliko da, diru-laguntza erregulatzen duen araudiarekin eta deialdiaren, laguntza emateko erabakiaren edo hitzarmenaren baldintzekin bat etorritz.

Nolanahi ere, diru-laguntzaren bidez lortu nahi diren helburu edo gizarte-xedeen arabera, udal ekarpena "**zenbateko jakin bat**" izan daiteke kostu osoaren ehuneko edo zatiki bati erreferentziarik egin gabe, eta horrela izanez gero, diru-laguntza jasoko duen jarduera erabat gauzatzeko beharrezkoa den finantzaketa-aldea onuradunaren kontura dela ulertuko da, eta jardueraren kostu osoa gaitzen duen udalak emandako ekarpenaren zenbatekoa, berriz, hala egokituz gero, itzuli egin beharko da.

3.- Ordenantza honi jarraiki ematen diren diru-laguntzak xede berberarekin ematen diren gainerako laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin bateragarri izango dira, kontuan izan gabe zein Administrazio edo erakunde publikotatik edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik jaso diren.

En todo caso, la actividad subvencionada se financiará con recursos propios del beneficiario en el importe o proporción correspondiente cuando así se establezca en la respectiva convocatoria, acuerdo de concesión o convenio. Dicha aportación, con indicación del importe y su procedencia, deberá ser acreditada a través de la relación detallada de otros ingresos, recursos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada que se exige como documentación integrante de la cuenta justificativa.

2.- Con carácter general, el presupuesto del proyecto o de la actividad a subvencionar presentado por el solicitante o sus modificaciones posteriores, servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose éste como un porcentaje del coste final del proyecto o actividad. En este caso, el eventual exceso de financiación por parte del Ayuntamiento se calculará tomando como referencia la proporción que alcance dicha aportación respecto del coste total, de conformidad con la normativa reguladora de la subvención y las condiciones de la convocatoria, acuerdo de concesión o convenio.

No obstante, en función de la naturaleza y objetivos o fines sociales perseguidos por la subvención, la aportación del Ayuntamiento podrá consistir en un **importe cierto** sin referencia a un porcentaje o fracción del coste total, en cuyo caso se entenderá que queda de cuenta del beneficiario la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada, en su caso, la aportación hecha por el ayuntamiento por el importe en que la misma exceda del coste total de dicha actividad.

3.- Las subvenciones que se concedan con arreglo a esta Ordenanza, serán compatibles con todas las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.



4.- Inola ere ezingo da diru-laguntzarik eman, baldin eta, diru-laguntza hori bera isolatuki edota beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diru-laguntzaren xede den proiektu edo jardueren kostua baino handiagoa bada, edota, hala egokituz gero, dagokion deialdian ezarri diren udal finantzaketaren mugak gainditzen baditu.

5.- Entitate publiko desberdinetatik jasotako diru-laguntzak proiektu edo jardueraren kostua baino handiagoak baldin badira, onuradunak itzuli egin beharko dio Udalari dagokion gaindikina, hark emandako diru-laguntzaren proportzioan eta ordainagiriari dagokion justifikazioa gehituz.

6.- Deialdiek edo diru-laguntza emateko akordio konkretuek kontrakoa xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen Udalaren aldeko bermeak eskatzea emandako laguntzengatik.

#### **18. Artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak.**

1.- Ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak eta diru-laguntzen oinarri espezifikoetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz laguntzekoak diren gastuen erosketa-kostua inoiz ezingo da izan merkatuko balioa baino handiagoa.

2.- Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak kontratuen legeriak kontratu txikirako ezarritako kopuruak gainditzen baditu (gaur egun 18.000,00 euro ondasunen hornidurarako edo zerbitzuen prestaziorako eta 50.000,00 € obra-kontraturako), onuradunak hornitzaile desberdinei gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, non eta diruz laguntzekoak diren gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan ondasuna hornitzen edo zerbitzua ematen duten entitateen kopuru nahikorik ez dagoen edota gastua diru-laguntza eskatu aurretik egin ez den.

4.- En ningún caso, se podrán otorgar subvenciones por cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de los proyectos o actividades subvencionadas, ni superar los límites de financiación municipal que, en su caso, se hubieran establecido en la respectiva convocatoria.

5.- Cuando se produzca exceso de las subvenciones percibidas de distintas Entidades públicas respecto del coste del proyecto o actividad, el beneficiario deberá reintegrar al Ayuntamiento el exceso que corresponda en proporción a la subvención concedida por éste, uniendo la carta de pago a la correspondiente justificación.

6.- Salvo que las convocatorias o los acuerdos concretos de concesión de subvención dispongan lo contrario, no se considera necesaria la exigencia de garantías a favor del Ayuntamiento por razón de las ayudas otorgadas.

IND

#### **Artículo 18.- Gastos Subvencionables.**

1.- Se consideran gastos subvencionables a los efectos previstos en esta ordenanza, aquéllos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases específicas de las subvenciones. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

2.- Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la legislación de contratos para el contrato menor (actualmente 18.000,00 euros para suministro de bienes o prestación de servicios y 50.000,00 € para un contrato de obra), la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.



Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa (justifikatzeko dokumentazioarekin batera edo, hala badagokio, diru-laguntzaren eskaerarekin batera ekarri beharko dena) efizientzia eta ekonomiako irizpideen arabera egingo da; eta, proposamen ekonomikorik onena hautatu ez bada, memoria batean berariaz justifikatu beharko da erabakia.

3.- Inbertsioko eta/edo kapital-ondasuneko gastuak subentzionatzen diren kasuetan, horiek onuradunaren titulartasunpean eta erabilerapean egon beharko dute, diru-laguntza ematearen xede izan zen helbururako, gutxienez 5 urtez.

4.- Finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notariotzako eta erregistroko gastuak, diru-laguntza jaso duen proiektua egiteko peritu-gastuak eta berariazko administrazio-gastuak dira diru-laguntza jaso dezaketenak, baldin eta zuzeneko lotura badute diruz lagundutako jarduerarekin eta ezinbestekoak badira hura behar bezala prestatzeko nahiz burutzeko.

5.- Tributuak diruz lagundu ahalko dira baldin eta diru-laguntzaren onuradunak benetan ordaindu baditu.

6.- Kostu orokor justifikaezinak:

Diruz laguntzekoak izango dira zeharbidezko kostuak, kasuan kasuko deialdiak, laguntza emateko erabakiak edo hitzarmenak zehazten duen gehieneko portzentajea. Portzentaje hori inoiz ezingo da izan gauzatutako aurrekontuaren % 15a baino gehiagokoa. Gastu horiek onartuko badira, espresuki kontsignatuak egon beharko dute gastuen aurrekontu onartuan.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

3.- En los casos en los que se subvencionen gastos de inversión y/o bienes de capital, estos deberán permanecer bajo la titularidad y uso del beneficiario para el fin concreto para el que se concedió la subvención por un plazo no inferior a 5 años.

4.- Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma

5.- Los tributos son subvencionables cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente.

6.- Costes Generales no justificables:

Tendrán el carácter de subvencionables los costes indirectos en el porcentaje máximo que se determine en la respectiva convocatoria, acuerdo de concesión o convenio. En ningún caso el citado porcentaje podrá ser superior al 15% del presupuesto ejecutado. La admisión de estos gastos requerirá que se hayan consignado de forma expresa en el presupuesto de gastos admitido.



7.- Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Onuradunaren jabetzako inbentario-ondasunen amortizazio-gastuak.
- c) Interesak, errekarguak eta santzio administratibo eta penalak
- d) Prozedura judizialako gastuak.
- e) Zeharkako zergak, berreskuratzeko edo konpentsatzeko gai direnean, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- f) Bazkarien, afarien edo ostalaritzako zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekintza batean parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta, hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.

Salbuespen moduan, diruz lagun daitekeen gastutzat onartuko dira antolatzaileek eta boluntarioek jardueran egindako lana konpentsatze aldera ebentuen bukaerako ekitaldi bakar bat egiteak dakartzan gastuak, betiere horiek inolako konpentsaziorik lortu ez badute beste bide batzuetatik.

- g) Gastuen notak edo beste dokumentu batzuk, legezko balioko fakturatzat edo sinestamendutzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte.

8.-Inolaz ere ez da gastu arrunten justifikazioa onartuko dagozkien oinarri espezifikoetan ezarritako mugapenak gainditzen dituzten partean.

Gastu Arrunten eta Inbertsio-Gastuen arteko konpentsaziorik ere ez da onartuko, eta kontzeptu horietako bakoitza Memoria Moldatuetan kontsignatutako zenbatekoak mugaturik geratuko dira; horrek, hala ere, ez ditu eragotziko geroztiko aldaketa baimenduak, betiere konpentsazioak ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren zenbateko totalaren % 20.

7.- No se admitirán como gastos subvencionables:

- a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- b) Los gastos de amortización de los bienes inventariables propiedad del beneficiario.
- c) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- d) Los gastos de procedimientos judiciales.
- e) Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación, y los impuestos personales sobre la renta.
- f) Costes de comidas, cenas u otras propias de servicios de hostelería, salvo los originados con relación a los propios participantes de una actividad puntual subvencionada, que deberán guardar, en todo caso, la oportuna proporcionalidad entre el gasto realizado y el objetivo perseguido.

Excepcionalmente se admitirán como gasto subvencionable, los costes que acarree la celebración de un único acto de fin del evento destinado a compensar el trabajo desempeñado en la actividad por los organizadores y voluntarios, siempre que éstos no hayan obtenido ningún tipo de compensación por otras vías.

- g) Nota de gastos u otros documentos que no reúnan los requisitos reglamentariamente exigibles para ser considerados facturas o justificantes con validez legal.

8.- En ningún caso se admitirá la justificación de los gastos corrientes en la parte que excedan a las limitaciones establecidas en las correspondientes bases específicas.

Tampoco se admitirán compensaciones entre Gastos Corrientes y Gastos de Inversión, quedando cada uno de estos conceptos limitados por el importe consignado en las Memorias Adaptadas, sin perjuicio de ulteriores modificaciones autorizadas, y siempre que la compensación no supere el 20% del importe total del programa subvencionado.



Non eta oinarri espezifikoek kontrakoa ezartzen ez duten, gastu burututzat joko da behar bezala fakturatua izan dena edo, kasua hala bada, ezartzen den aldian zehar benetan pagatu izan dena.

### **19. Artikulua.- Diruz lagundutako jarduerak onuradunek azpikontratatzea.**

1.- Ordenantza honen ondorioetarako, onuradunak azpikontratatzeko duela ulertuko da baldin eta hirugarrenekin hitzartzen badu diru-laguntzaren xedeko proiektua edo jarduera osorik nahiz zati batean gauzatzea. Kontzeptu honetatik kanpo gelditzen da diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko onuradunak egin beharko dituen gastuen kontratazioa.

2.- Diru-laguntza jaso duen jardueraren zenbatekoaren 100eko 100(e)rainoko portzentaje bat azpikontrata dezakete onuradunek. Deialdian, hitzarmenean edo laguntza emateko erabakian portzentaje txikiago bat finkatu edo azpikontratazioa debekatu ahalko da.

3.- Pertsona onuradunak ezingo du diruz lagundutako jarduerak osorik edo zati batean gauzatzea hitzartu honako hauekin:

- a) Ordenantza honen 9. artikuluko debekuetakoren batean sarturik dauden pertsonak edo entitateak, sexuaren motibozko diskriminazioagatik gertaturikoak barne.
- b) Kontratazioaren xedeko jarduera egiteko beste diru-laguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo entitateak.
- c) Operazioaren kostu osoaren ehuneko jakin bat pagatzen zaien pertsona edo entitate bitartekariak edo aholkulariak, non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatua egindako lanaren edota emandako zerbitzuen merkatuko balioaren arabera.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsonak edo entitateak, non eta zertzelada hauek gertatzen ez diren:
  - \* Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egiten dela.
  - \* Aldez aurretik organo laguntza-emaielaren baimena eskuratzen dela, oinarri espezifikoetan zehazten den terminoetan.

Salvo que las bases específicas establezcan lo contrario, se considerará gasto realizado el que ha sido debidamente facturado, o en su caso, efectivamente pagado durante el periodo que se establezca.

### **Artículo 19.- Subcontratación de las actividades subvencionadas por los beneficiarios.**

1.- A los efectos de esta ordenanza, se entiende que el beneficiario subcontrata cuando concierta con terceros la ejecución total o parcial del proyecto o actividad subvencionada. Queda fuera de este concepto, la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir el beneficiario para la realización por sí mismo de la actividad subvencionada.

2.- Los beneficiarios podrán subcontratar hasta un porcentaje del 100 por 100 del importe de la actividad subvencionada. En la convocatoria, convenio o acuerdo de concesión se podrá establecer un porcentaje inferior o prohibir la subcontratación.

3.- No podrá concertarse por la persona beneficiaria la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con:

- a) Personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del artículo 9 de esta Ordenanza, incluidas las producidas por discriminación por razón de sexo.
- b) Personas o entidades que hayan percibido otras subvenciones para la realización de la actividad objeto de contratación.
- c) Personas o entidades intermediarias o asesoras en las que los pagos se definan como un porcentaje de coste total de la operación, a menos que dicho pago esté justificado con referencia al valor de mercado del trabajo realizado o los servicios prestados.
- d) Personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, salvo que concurran las siguientes circunstancias:
  - \* Que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado.
  - \* Que se obtenga la previa autorización del órgano concedente en los términos que se fijen en las bases específicas.



- e) Deialdi eta programa berean laguntza edo diru-laguntza eskatu eta, betekizunak ez betetzeagatik edo behar adinako baloraziorik ez eskuratzeagatik, diru-laguntzarik lortu ez duten pertsonak edo entitateak.

4.- Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handiagotzen duen baina haren edukiari balio erantsirik gehitzen ez dion ekintzarik

## **20. Artikulua.- Emandako diru-laguntzen publizitatea.**

1.- Eman diren diru-laguntza guztiei publizitatea emango zaie Udalaren webgunearen bitartez eta, ahal den heinean, komunikabide lokalen bitartez, Gardentasunari buruzko xedapenen arabera.

### **IV. KAPITULUA**

#### **DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

## **21. Artikulua.- Diru-laguntzak emateko prozeduren motak.**

1.- Diru-laguntzak ematerakoan jarraitutako prozeduraren arabera, diru-laguntzen mota hauek bereiziko dira:

- a) Norgehiagokako erregimeneko diru-laguntzak: Horrelakoetan, hainbat eskabide egon daitezke elkarren lehian, eta diru-laguntza emateak berekin dakar eskabide horiek prozedura bakarrean elkarrekin alderatzea, arau erregulatzailean edo deialdian xedaturiko irizpideen arabera, horren bitartez diru-laguntza zeini eman ebazteko eta, kasua hala bada, zenbatekoa zehazteko.
- b) Konkurrentzia libreko erregimenean diren diru-laguntzak: onuradun izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituztela akreditatua dutenei emango zaizkie, eta eskaerak jaso ahala banatuko dira, harik eta aurrekontuetako diru-hornidurak amaitzen diren arte. Kasu zehatzetarako ematen dira, deialdi publikoa egitea eragozten duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako bestelakoak egiaztatzen direnean.

- e) Personas o entidades solicitantes de ayuda o subvención en la misma convocatoria y programa, que no hayan obtenido subvención por no reunir los requisitos o no alcanzar la valoración suficiente.

4.- En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

## **Artículo 20.- Publicidad de las subvenciones concedidas.**

1.- Se dará publicidad a todas las subvenciones concedidas a través de la web municipal y, en la medida de lo posible, a través de los medios de comunicación locales, de conformidad con las disposiciones relativas a la Transparencia.

### **CAPITULO IV**

#### **PROCEDIMIENTO DE CONCESION**

## **Artículo 21.- Tipos de Procedimientos de concesión.**

1.- En base al procedimiento seguido en la concesión de las subvenciones, se distinguen los siguientes tipos de subvenciones:

- a) Subvenciones en régimen de concurrencia competitiva: Aquellas que contemplan una eventual pluralidad de solicitudes y la concesión requiere la comparación en un único procedimiento, de dichas solicitudes entre sí de acuerdo con los criterios establecidos en la norma reguladora o en la convocatoria, para resolver sobre la concesión y, en su caso, establecer la cuantía.
- b) Subvenciones en régimen de libre concurrencia: se otorgarán a quienes hubieran acreditado cumplir los requisitos necesarios para ser personas beneficiarias y se distribuirán según se reciban las peticiones hasta finalizar las dotaciones presupuestarias. Se otorgan para supuestos concretos en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.



Atal honetan sartuko dira, halaber, bekak, sariak eta sektore-mailako xedapenean arautze propioa duten laguntzak edo diru-laguntzak.

Zerbitzu Sozialetako Departamentuaren diru-laguntzak, familiei dagozkienak, departamentuko programen edukira egokituko dira. Programen inguruabar partikularrek hala aholkatzen dutenean, aurreikusitako baldintzaren bat ez betetzeko salbuespena eman ahal izango da.

- c) Zuzeneko diru-laguntza izendunak: Horrelakoetan, zehaztuta eta esplizituki identifikatuta datoz pertsona onuradunak, eta izaera horrekin agertzen dira Udalaren Aurrekontuetako Transferenzien eta Diru-laguntzen Eranskinean. Administrazio-unitateak edo organismo autonomo eskudunak diru-laguntza emateko proposamena egiten duenean, zehatz-mehatz deskribatu beharko du zein den diru-laguntzaren xedea, bai halaber zein den diru-laguntza hori jasoko duen xedea, asmoa, jarduerak edo proiektu zehatza.

2.- Diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagokako erregimenean tramitatuko da.

## **1. SEKZIOA. Norgehiagokako erregimeneko diru-laguntzak**

### **22. Artikulua.- Norgehiagokako erregimeneko diru-laguntzak**

1.- Prozedurari ofizioz emango zaio hasiera, organo eskudunak onetsitako deialdiaren bitartez, aldezturik edo aldi berean oinarri espezifikoak onetsita.

2.- Deialdiak, gutxienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.2 artikuluan ezarritako edukia izango du, eta Ordenantza honetan xedatutakoari lotuko zaio.

Se consideran dentro de este apartado las Becas, premios y aquellas ayudas o subvenciones que tengan su propia regulación en disposición de carácter sectorial.

Las subvenciones correspondientes a Familias del Departamento de Servicios Sociales, se ajustarán al contenido de los distintos programas del Departamento, pudiendo exonerarse del cumplimiento de alguno de los requisitos previstos cuando las circunstancias particulares de los programas así lo aconsejen.

- c) Subvenciones directas nominativas: Son aquellas cuyas personas beneficiarias se encuentran determinadas y explícitamente identificadas, y figuran con tal carácter en el Anexo de transferencias y subvenciones del Presupuesto Municipal. La propuesta de concesión de la subvención realizada por la unidad administrativa u organismo autónomo competente deberá describir de forma detallada el objeto de la subvención, así como el fin, propósito, actividades o proyecto específico al que se encuentra afectada la entrega.

2.- El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva.

KS

## **SECCION 1.ª Subvenciones en régimen de concurrencia competitiva**

IND

### **Artículo 22.- Subvenciones en regimen de concurrencia competitiva.**

1.- El procedimiento se iniciará de oficio mediante convocatoria aprobada por el órgano competente, previa o simultánea aprobación de las bases específicas.

2.- La convocatoria tendrá como mínimo, el contenido establecido en el artículo 23.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre y se ajustará a lo dispuesto en la presente Ordenanza.

## **2. SEKZIOA.- Konkurrentzia libreko erregimenean diren diru-laguntzak**

### **23. Artikulua.- Konkurrentzia libreko erregimenean diren diru-laguntzak**

1.- Prozedura pertsona interesatuak eskatuta, Alkatetzak ofizioz aginduta edo beste edozein korporaziokidek proposatuta abiaraziko da.

2.- Diru-laguntzaren onuradunak Ordenantza honen 10. artikuluan jasotako obligazioak bete beharko ditu. Hala eta guztiz ere, ohiz kanpoko kasu batzuetan, salbuetsi ahalko da horietakoren bat bete beharretik, espedientearen behar bezala justifikatuak geratu beharko duten arrazoiengatik.

3.- Ebazpenak akreditatu egin beharko ditu interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo bestelakoak, bai horren gainean egindako txosten teknikoaren arabera, kasua hala bada, bai ebazpenean bertan jasotakoaren arabera.

4.- Artikulu honen aurreko puntuetan ezarritakoa gorabehera, diru-laguntza baten kontzesioa edo zenbatekoa lege-mailako arau batek ezarria bada, hark xedatzen duena aplikatu beharko da, eta, hartan aurreikusi gabeko guztian, ordenantza honek eta DLOak xedatzen dutena.

5.- Udalaren aurrekontu orokorra gauzatzeko oinarriak diru-laguntza horiek emateko arauak edo baldintzak ezarri ahalko dituzte.

## **3. SEKZIOA. Zuzeneko diru-laguntza izendunak**

### **24. Artikulua.- Zuzeneko diru-laguntza izendunak.**

1.- Prozedura pertsona interesatuak eskatuta, Alkatetzak ofizioz aginduta edo beste edozein korporaziokidek proposatuta abiaraziko da.

2.- Mota honetako diru-laguntzak emango badira, ezinbesteko baldintza izango da Udalaren Aurrekontu Orokorrean diru-izendapen espezifikoak izatea, diru-laguntzaren onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua edo xedea zehaztuta.

## **SECCION 2.ª Subvenciones en régimen de libre concurrencia.**

### **Artículo 23.- Subvenciones en régimen de libre concurrencia.**

1.- El procedimiento se iniciará a solicitud de la persona interesada, de oficio por la Alcaldía o a propuesta de cualquier otro corporativo.

2.- El beneficiario de la subvención deberá cumplir con las obligaciones recogidas en el artículo 10 de esta Ordenanza. Ello no obstante, en supuestos extraordinarios podrá exonerarse del cumplimiento de alguna de ellas por razones que deberán quedar debidamente justificadas en el expediente.

3.- La resolución de concesión deberá acreditar la concurrencia de las razones de interés público, social, económico o humanitario u otras, bien en función del informe técnico emitido en su caso, bien en los que se recoja en la propia resolución.

4.- Sin perjuicio de lo establecido en los apartados anteriores de este artículo, las subvenciones cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto por una norma de rango legal, se estará a lo que ella disponga, y en lo no previsto en ella a lo que dispone esta ordenanza y la LGS.

5.- Las bases de ejecución del presupuesto general municipal podrán establecer normas o condiciones para la concesión de estas subvenciones.

## **SECCION 3.ª Subvenciones directas nominativas**

### **Artículo 24.- Subvenciones directas nominativas.**

1.- El procedimiento se iniciará a solicitud de la persona interesada, de oficio por la Alcaldía o a propuesta de cualquier otro corporativo.

2.- Para la concesión de esta clase de subvenciones será imprescindible la existencia de consignación específica en el Presupuesto General Municipal con detalle del beneficiario, el importe y el concepto u objeto de la subvención.



3.- Udalaren Aurrekontu Orokorrean berariaz izendatutako diru-laguntzen kasuan, horiek emateko ebazpenak eta/edo horiek bideratzeko sinatuko den hitzarmenak arautuko dituzte, zeinak oinarri arautzaileen izaera izango baitu Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoaren ondorioetarako.

Ebazpenaren edo —kasua hala bada— hitzarmenaren edukiak, gutxienez, honako zehaztasun hauek jaso beharko ditu:

- a) DLOan ezarritako arau orokorren salbuespen diren espezifikotasunak.
- b) Laguntzaren edo diru-laguntzaren xedearen, baldintzen eta helburuaren definizio argia, zehatza eta doia.
- c) Aurrekontuetan aurreikusitako kontu-saila eta, kasua hala bada, haietara xedaturiko gehienezko zenbateko globala.
- d) Diru-laguntza lortzeko, onuradunek bete beharreko baldintzak, eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentuak eta eskatzen zaizkien baldintzen egiaztagiria.
- e) Onuradunak diru-laguntza ematearen helburua bete duela eta jasotako funtsak behar bezala aplikatu dituela justifikatzeko duen epea eta baliozko forma, bai eta justifikaziorako baliozkoa den dokumentazioa ere.
- f) Aldi berean beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliakizun batzuk izateko aukera eta, kasua hala bada, horiek jasotzeko bateraezintasuna. Bateragarritasuna onartzen bada, gehiegizko finantzaketa saihesteko mugak edo irizpideak ezarri beharko dira nahitaez.
- g) Diru-laguntza ordaintzeko moduak eta epeak, eta, kasua hala bada, konturako ordainketak eta pagamendu aurreratuak egiteko aukera; pagamendu aurreratuak —eta, horrela badagokie, konturako ordainketak— egiten diren kasuetarako, onuradunak jarri beharreko bermeen epea, ordaintzeko modua eta erregimen berezia, bai halaber interes publikoak babesteko beharrezkotzat jotzen diren bestelako berme-neurriak ere.

3.- Las subvenciones previstas nominativamente en el Presupuesto General del Ayuntamiento se regirán por la resolución de concesión y/o por el convenio a través del cual se canalicen, que tendrá el carácter de bases reguladoras a los efectos de lo dispuesto en la Ley General de Subvenciones.

El contenido de la resolución o, en su caso, del convenio, contendrán como mínimo los siguientes extremos:

- a) Las especificidades que supongan excepción a las reglas generales establecidas en la LGS.
- b) Definición clara, concreta y precisa del objeto, condiciones y finalidad de la ayuda o subvención.
- c) La partida presupuestaria prevista, y, en su caso, el importe global máximo destinado a las mismas.
- d) Requisitos que deberán cumplir los beneficiarios para la obtención de la subvención, documentación a aportar por los solicitantes y la acreditación de los requisitos exigidos.
- e) Plazo y forma válida de justificación, por el beneficiario, del cumplimiento de la finalidad para la que se concede la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos, así como la documentación válida a los efectos de justificación.
- f) Posibilidad de concurrencia con otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos y, en su caso, incompatibilidad con su percepción. En el caso de admitirse la compatibilidad, deberán establecerse necesariamente los límites o criterios para evitar la sobrefinanciación.
- g) Formas y plazos de pago de la subvención y, en su caso, la posibilidad de realizar abonos a cuenta y pagos anticipados, plazo, modo de pago y régimen particular de garantías que deberán aportar los beneficiarios para los supuestos de pagos anticipados y, en su caso, para los abonos a cuenta, así como aquellas otras medidas de garantía en favor de los intereses públicos que puedan considerarse precisas.



- h) Laguntza edo diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak ez badira betetzen edo jasotako diru-kopurua gauzatutako jardueraren kostua baino handiagoa bada, eskuratutako funtsak itzultzeko betebeharra.

Diru-laguntzak ematearen kariaz ezarritako baldintzen ez-betetze posibleak mailakatzeko irizpideak finkatuko dira. Irizpideok aplikatu beharko dira onuradunak azkenean zenbat jaso behar duen erabakitze edo, hala badagokio, zenbatekoa den itzuli beharrekoa, eta proportzionaltasunaren printzipioari erantzun beharko diote.

4.- Diru-laguntza Udalaren Aurrekontuan aurreikuste hutsak ez dio inolako eskubiderik sortzen onuradunari, organo eskudunak diru-laguntza emateko ebazpenik hartzen ez duen artean, eta hurrengo urtaldietarako ere ez du eskubide-esperakizunik sortzen.

## **V. KAPITULUA**

### **AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA**

#### **25. Artikulua.- Diru-laguntza ordaintzeko modua eta epeak.**

1.- Oro har, diru-laguntzaren zenbatekoa modu hauetakoren baten bidez ordainduko dira:

- \* (A) AUKERA - Pagamendu bakarra, diru-laguntzaren xedeko jardura justifikatutakoan.
- \* (B) AUKERA - Zatikatutako edo kontura ordaindutako bi pagamendutan:
  - > Zenbateko osoaren % 60a diru-laguntza ematen den unean, aurrerakin gisa.
  - > Gainerako % 40a, behin organo eskudunak diru-laguntzaren likidazioa onetsitakoan, hau da, diruz lagundutako programaren edo jardueraren dokumentazio eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu ondoren.
- \* (C) AUKERA - Aurreordainketak, funtsak justifikatu aurretik entregatzea inplikatu dutenak, baldin eta deialdiaren oinarrietan edo hitzarmenetan edo laguntza emateko ebazpenean hala xedatzen bada.

- h) Obligación de reintegro de los fondos percibidos en el supuesto de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda o subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

Se fijaran los criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.

4.- El mero hecho de su contemplación en el Presupuesto Municipal de la subvención no crea derecho alguno a favor del beneficiario, mientras no haya sido adoptada la resolución de concesión por el órgano competente, ni genera expectativas de derecho en futuras anualidades.

## **CAPITULO V**

### **PROCEDIMIENTO DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA**

#### **Artículo 25.- Forma y Plazos de abono de la subvención.**

1.- El abono de la subvención se realizará por alguna de la siguientes modalidades:

- \* OPCIÓN (A) - Pago único previa justificación de la actividad objeto de subvención
- \* OPCIÓN (B) - En dos pagos fraccionados o a cuenta:
  - > El 60% del importe total de la subvención en el momento de la concesión, en concepto de anticipo.
  - > 40% restante, una vez aprobada por el órgano competente la liquidación de la subvención, esto es, con posterioridad a la entrega de la documentación y justificación completa y correcta del programa o actividad subvencionada.
- \* OPCIÓN (C) - Pagos anticipados, que supondrán entrega de fondos con carácter previo a la justificación, si así se determina en las bases de la convocatoria o en los convenios o en la resolución de concesión.



2.- Aurrekoa horrela izanik ere, diruz lagundutako ekintzarengatik justifikatzen bada, konturako ordainketak egin ahalko dira. Konturako ordainketa horiek pagamendu zatikatuak egitea ekar dezakete, diruz lagundutako ekintzak burutu ahala egingo direnak; halakoetan, aurkezturiko justifikazioaren heineko kopuruak ordainduko dira.

## **VI. KAPITULUA**

### **DIRU-LAGUNTZEN DESTINAZIOA JUSTIFIKATZEA**

#### **26. Artikulua.- Diru-laguntzen destinazioa justifikatzea.**

1.- Onuradunak behartuta egongo dira betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela justifikatzera, baita jarduera hori burutzea eta deialdian, laguntza emateko erabakian edo hitzarmenean ezarritako xedea betetzera ere.

2.- Justifikazio hori bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan idatzi beharko da, hurrengo modalitate hauetako baten arabera:

a) Justifikazio-kontua.

1. Gastuen sinestamenduak aportatuz.
2. Kontu-ikuskatzailearen txostena aportatuz.
3. Sinplifikatua.

b) Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea.

3.- Justifikazioa onuradunaren nahitaezko eginbearra da, zeinetan sartu behar baitira, deklaratzaileraren erantzukizunpean, gastuaren sinestamenduak edo diru-laguntza publikoaren xedea bete dela akreditatzea ahalbidetzen duen eta baliozkotasun juridikoa duen beste edozein dokumentu (I. Eranskina ikusi).

[\(Ikusi baimendutako dokum.\)](#)

4.- Baldin eta jarduerak finantzatzeko, diru-laguntzaz gain, funts propioak edo bestelako diru-laguntzak edo baliabideak erabili badira, justifikazio horretan akreditatu beharko dira funts horien zenbatekoa eta jatorria, bai eta diruz lagundutako jardueretarako erabiliak izan direla ere.

5.- Hala egokituz gero, justifikazio hori programatutako jarduera baino txikiagoa bada, aplikatu ez diren soberakinen zenbatekoa itzuli izanaren ordainagiria gehitu beharko da.

2.- No obstante lo anterior, cuando se justifique por razón de la acción subvencionada, podrán realizarse abonos a cuenta. Dichos abonos a cuenta podrán suponer la realización de pagos fraccionados, que responderán al ritmo de ejecución de las acciones subvencionadas, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada.

## **CAPITULO VI**

### **JUSTIFICACION DEL DESTINO DE LAS SUBVENCIONES**

#### **Artículo 26.- Justificación del destino de las subvenciones.**

1.- Los beneficiarios estarán obligados a justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad establecidas en la convocatoria, acuerdo de concesión o convenio.

2.- Dicha justificación deberá redactarse en cualquiera de las dos lenguas oficiales por alguna de las siguientes modalidades:

a) Cuenta justificativa

1. Con aportación de justificantes de gasto
2. Con aportación de informe auditor.
3. Simplificada.

b) Presentación de estados contables.

3.- La justificación constituye un acto obligatorio del beneficiario, en la que se deben incluir, bajo responsabilidad del declarante, los justificantes de gasto o cualquier otro documento con validez jurídica (Ver Anexo-I) que permitan acreditar el cumplimiento del objeto de la subvención pública.

[\(Ver Doc.Autorizados\)](#)

4.- Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

5.- En su caso, cuando la justificación sea inferior a la actividad programada se deberá acompañar carta de pago de reintegro por el importe de los remanentes no aplicados.



## 27. Artikulua.- Justifikatzeko moduak.

1.- Jasotako funtsen aplikazioa, oro har, honela justifikatuko da:

- a) Diru-laguntzaren destinazioa obra edo instalazio bat egitea bada, justifikatzeko dokumentuak teknikari eskudun baten ziurtagiriak izango dira. Udalak izendatu ahalko du teknikari municipal bat bertara ager dadin eta akta egin dezan burututako obraren edo instalazioaren egoerari buruz.
- b) Baldin eta destinazioa material suntsikorra erostea, zerbitzuak ematea edo antzeko beste batzuk badira, jatorrizko justifikazio-dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak ekartzeko eskatuko da.
- c) Baldin eta destinazioa entitate edo erakunde baten urteko jarduera orokorrari badagokio, justifikazioa urteko kontuak aurkeztuz egingo da, entitate horretako organo eskumendunak behar bezala onetsita eta presidentearen eta diruzainaren sinadurekin.
- d) Lankidetzarako hitzarmenetan, entitate onuradunak jasoko funtsen aplikazioa nola justifikatuko duen adieraziko da, hitzarmenaren xedeko jardueraren gastu eta sarreraren azterketa xehatu baten bidez, udalak jarduera horretan duen parte-hartzea analizatu ahal izateko xedearekin.

2.- Laguntza-programa bakoitzeko oinarri espezifikoei eta/edo deialdiei beste agiri gehigarri batzuk ezar baditzakete ere, lortutako diru-laguntza justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

